



Iparra-Hegoa Seguran



Ugatza
ugaltzen



Yoyes
filmaren
estreinua



GARMENDIA
Tejas y cubiertas S.L.

Egurrezko egitura tratatuak

egiteko prestatuak: komunitateak, baserriak, txaletak eta abar

Tel-Faxa: 943 16 10 32

Maiuz Industrialdea, 26. pab.

ORDIZIA



Edozein motatako teilatuak

Aprobetxa ezazu uda hizkuntzak ikasteko



Nick's
ENGLISH CENTRE

*Zenbat aldiz pentsatu
duzu zure ingelesezko behar duzula?*

Nick Knight

J.M. Barandiaran, 1

☎ 943160051 - 686320515

E-mail: nick@facilnet.es

ORDIZIA

> Ingalaterran egonaldiak

> Urtean zehar maila guztientzako klaseak, haur, gazte eta helduentzat

> Kontsultatu inongo konpromezurik gabe



DO'S HIZKUNTZAK

2000.eko UDA

☀ Ingelera, frantsesa, alemaniera eta euskara

☀ Udako ikastaro trinkoak Beasainen

☀ Sheffield Centreko ordezkariak

Ikastaroak atzerrian: Ingalaterra, Irlanda, Frantzia, Alemania, USA, Kanada

Lan praktikak: Ostalaritza, Au-Pair

☀ Cambridgeko Unibertsitate, Frantziako Aliantza eta Goethe Instituteko azterketetarako prestakuntza

☀ Talde txiki eta berdinek adinen arabera

☀ MULTIMEDIA sistema (aukeran): azkeneko teknologia zure esku, ordutegirik gabe, zuk aukeratzen duzu.

☀ Laguntza pertsonalizatua

ZATOZ ETA APROBETXATU UDA

Nafarroa Etorb. 1, 'Etxe Ubi' BEASAIN

☎ 943 880 346 E-mail: dosidio@adegi.es



interlang

International Language Services



Ingeles eta aleman ikastaro trinkoak udarako



Haur, gazte eta helduentzako hizkuntz ikastaroak atzerrian, lan praktika, kirol eta bestelako ekintza askorerkin



Itzulpen gintza eta enpresatarako hizkuntz zerbitzu orokorrak



Au-Pair: gestio azkarra eta kontu haundiz aukeratutako familiak



Lan esperientzia atzerrian: Irakasle goa eta begiraleak U.S.A.-n: ostalaritza eta abar



The Clover School of Languages



Zuretzat ere badago tokia

Uda honetan ere ingelera eta frantseseko beharrei erantzuteko gaude

MATRIKULA DOHAINIK

Domingo Unanue Plaza, 5

☎ 943 16 20 16

ORDIZIA

Kolon, 5

☎ 943 27 81 61

DONOSTIA

J.M. Iturrioz, 11 - 1.

☎ 943 16 05 72

BEASAIN

Elkano, 8 - 1.

☎ 943 88 11 37

ORDIZIA

Iparragirre, 8 - 1.

☎ 943 72 22 23

ZUMARRAGA

Non zer

6 KOLABORAZIOA: Joxepa Madariaga

7 TXANDAKA: Xabier Iraola

9 KATE MOTZEAN: Juan Ramon Mendia

10-11: Ugatza

12: Agauntza ibaiko lanak

13: Hamaika gazteren aurkako epaiketa

14-23 KRONIKAK

IDIAZABAL 14: Etxebizitza eta industria ugaritzen

ZEGAMA 15: Goierri gida turistikoaren aurkezpena

SEGURA 16: Bi herritar rock talde batean

LAZKAO 17: Euskaraz buru belarri

ATAUN 18: Ataun Aztergai Beka eta Argazki Lehiaketa

ORMAIZTEGI 19: Gasifikazioaren lehen fasea

ZALDIBIA 20: Odol ematea

BEASAIN 21: Aurreku Doinu Zaharren lehiaketa

MUTILOA 22: Lierni Garakoako arbi buruak

ORDIZIA 23: Merkataritza euskaraz

24-25: Iparra Hegoa Seguran

26: 'Yoyes' filma

27: DEBALDEKO IRAGARKIAK

28-29: AGENDA

30 FOTO ZAHARRA: Beasaingo Korpus Kristi eguna



Biloreren xaboi isurketa berria Zaldibian

Martxoaren 7an Bilorek xaboi isurketa egin zuela eta espedientea zabaldu dio Eusko Jaurlaritzak Zaldibiako enpresari. Isurketa hark zuri-zuri utzi zituen bazterrak, argazkiko autoa lekuko. Ardura administratiboren bat egon daitekeelakoan, isunen bat jar diezaioke Jaurlaritzak Biloreri.

Udala ere guztiz kezkatuta dago Bilorek sortzen duen kutsaduragatik. Udaleko ordezkarien esanetan, "Bilorek bere produkzioa %50an gehitu zuen iaz, zeuzkan azpiegiturak aldatu gabe. Xaboi egunero botatzen du baina eguraldiaren arabera, gutxiago edo gehiago erortzen da".

Xaboi isurketaz gain, beste hainbat arazo ere sortzen du Bilorek Udalaren arabera. Trafiko eta zarata arazoa, hozte sistemako arazoak... "Kamioiekin ere arazo handia sortzen da. Produkzio handitzearekin batera, kamioien joan-etorria ere asko ugaritu da eta trafiko arazo handiak sortzen dira", dio Oroitz Etxabek. Azken batean, "enpresa legeztatuta edukitzeko

hainbat baldintza bete behar ditu eta ez ditu betetzen. Jarduera baimenik ez dauka eta hori eskatzen diegu".

Udalaren erabakiaren arabera, hamabost eguneko epea jarriko dio Udalak beharrezko neurriak zehaztuko dituen jarduera txostena aurkeztu, epeak zehaztu eta neurriak hartzen hasteko. Jarrera aldaketarik ikusten ez bada, Udala neurri zorrotzak hartzeko prest dago.

Zaldibiako Udala bakar samar sentitzen da gai honen aurrean, "Jaurlaritza eta beste administrazioak egiten ari diren esku garbitzearekin, Udala bakarrik gelditzen ari da". Beraz, administrazio ezberdinek gaiari serio hel diezaiotela eskatzen du Udalak, "zaldibitarrok bizitza kalitate normala izan dezagun".

"Duela bi urte SO₂rekin arazoa izan genuen baina beharrezko filtroa jarri eta azufre dioxidoaren arazorik ez dago orain", dio Oroitz Etxabe zinegotziak.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Erredakzio
Batordea: Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz. Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane Altuna, Ederne Albizu, Agurtzane Bikuña, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Aitziber Murua, Iñaki Ugalde, Joxepa Madariaga, Xabier Iraola eta Pello Barandiaran.
Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
Tirada: 7.800 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Eusko Jaurlaritzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria**

Madrilgo Kongresurako hauteskunderen emaitzak herriz herri

HERRIA	ZENTSOA	ABST.	EAJ	EA	PSE-EE	PP	IU	EH/HB	BESTE
ALTZAGA	84	%69,05	12	11	1	0	1	-	0
96AN	80	%31,25	10	15	0	2	1	27	0
ARAMA	144	%58,33	35	16	1	6	1	-	0
96AN	140	%33,57	24	21	7	3	0	35	2
ATAUN	1.384	%62,57	327	165	9	4	4	-	0
96AN	1.414	%26,31	285	240	21	7	6	453	3
BEASAIN	10.084	%39,36	2.147	772	1.438	1.152	266	-	120
96AN	10.030	%26,88	2.007	1.017	1.736	662	480	1.211	56
EZKIO-ITSASO	467	%60,17	88	76	4	7	4	-	0
96AN	451	%28,60	59	98	5	4	0	148	0
GABIRIA	359	%39,00	60	142	2	8	0	-	0
96AN	353	%22,66	50	155	1	7	0	55	1
GAINTZA	109	%58,72	25	10	1	1	2	-	0
96AN	113	%37,17	24	9	2	1	0	32	1
IDIAZABAL	1.722	%46,34	326	429	44	97	10	-	2
96AN	1.635	%28,01	275	442	62	81	31	251	5
ITSASONDO	516	%64,53	77	49	16	18	2	-	2
96AN	536	%28,17	93	53	36	20	11	149	2
LAZKAO	4.011	%49,44	658	289	456	420	117	-	17
96AN	3.986	%25,93	687	356	632	230	207	766	12
LEGORRETA	1.175	%47,23	305	70	105	99	16	-	5
96AN	1.186	%25,21	300	93	141	75	34	214	5
MUTILOA	141	%63,83	31	13	1	3	1	-	0
96AN	147	%45,58	14	24	3	8	2	28	0
OLABERRIA	834	%40,53	156	47	135	120	17	-	8
96AN	906	%24,83	130	79	187	99	46	117	9
ORDIZIA	7.597	%44,18	1.202	726	909	901	266	-	73
96AN	7.582	%26,68	1.231	806	1.122	595	418	1.196	52
ORMAIZTEGI	958	%44,78	341	100	24	35	13	-	2
96AN	957	%21,32	293	182	32	25	21	173	1
SEGURA	1.027	%49,37	203	243	12	32	5	-	3
96AN	1.017	%19,17	178	323	23	20	4	254	4
ZALDIBIA	1.274	%78,26	84	67	48	40	19	-	3
96AN	1.307	%28,84	107	128	84	46	25	523	4
ZEGAMA	1.111	%50,86	152	332	13	36	4	-	2
96AN	1.140	%27,11	140	311	25	39	9	295	1
ZERAIN	207	%50,24	63	32	2	1	0	-	0
96AN	189	%31,75	53	29	4	2	0	35	0
GUZTIRA	33.204	48,60	6.292	3.589	3.221	2.980	748	-	237
96AN	33.169	%28,23	5.960	4.381	4.123	1.926	1.295	5.962	157

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak
ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

Goierrri bus

Segurtasun eta kalitatezko
zerbitzua

Tel.: 943 72 52 50

Faxa: 943 72 58 70

Mota guztietako autobusak
19, 29, 55, 60 eta 82 plazatakoak
Literadunak komunarekin





Beasainen langile bat hilda

50 urteko Manuel Lizarribar langilea martxoaren 7an hil zen, aurreko egunean izandako lan istripuaren ondorioz. Beasaingo Oriamendi kalean, Indarren parean, egiten ari diren etxeetan izan zen istripua. Bost metroko altueratik erori zen langilea. Heriotz hau salatzeke hainbat mobilizazio egin zen martxoaren 8an Beasainen. Izan ere, ELA, LAB eta ESK sindikatuak lan istripu bakoitzeko bilkurak egiteko erabakia hartua baitaukate. Honela, Beasaingo udaletxearen aurrean bilkura isila egin zuten 'Istripu gehiagorik ez' lemapean. UGT sindikatuak ere, bere aldetik, beste bilkura bat egin zuen, lan istripua gertatu zen leku berean.

Zegaman ere bai

Martxoaren 16an, Pedro Arratibel Urdangarin 63 urtek lazkotarra bihotzekoak emanda hiltzen Zegaman basoan lanean ari zenean.



CAF-eko langileak protestan

CAFeko enpresak langileak protestaldiak egiten ari dira "lan hitzarmen justu eta duin baten alde". Martxoaren 8an eta 21ean (argazkia ordukoa da) manifestazioak egin zituzten Ordizia eta Beasaineraino. Ordu estrarik ez sartzeko erabakia hartua dute CAFeko langileek protesta gisa.



BioSasieta S.A. eratu da

Martxoaren 8an eratu zen BioSasieta S.A. enpresa, aurreko alean aurreratu genizuen. Argazkian, sinadurako momentua agertzen da. Sasietako zaborteigiko zaborrak sortzen duen biogasa elektrizitate bihurtuko da. Sasieta Mankomunitateak eta EVE (Euskal Energiaren Elkartek) sortu dute enpresa.

'Euskal Herriak Intsumisioa'

Martxoaren 2an, Beasaingo Jarrai gazte erakunde kideek, bilkura egin zuten Prycan, "Euskal Herriak burujabetasun ekonomikoa behar duelako Intsumisioa aldarrikatuz". Espainiar eta Frantziar gobernuen "politika neoliberalista" salatu zuten eta euskal produktuak kontsumitzeko deia egin.

Urtegiak beteta

Euri gutxirekin bagabiltza ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datuen arabera, Arriaran eta Lareoko urtegiak beteta daude. Lareo % 76an eta Arriaran %99an.



Asier Mendizabalen erakusketa Donostian

Gipuzkoako Artista Berrien lehiaketa irabazi duen Ordiziako artistaren erakusketa ikusgai dago Donostiako Jareño Kultur etxean.



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, Idiazabalgo Ahizpak eta Ormaiztegiko Iñaki Erosle.



✓ Aholkularitza
juridikoa

✓ Entrepresa
zerbitzuak

✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92

Kale Nagusia, 2

BEASAIN



Joxepa
Madariaga

"Eboluzio hitza aipatzen den bakoitzean kontraesanak sortzen zaizkit: noraino iristen da eboluzio sano eta beharrezkoa eta non hasten da eboluzioaren izenean txikizio itsua?"

Artzainak eraiki dugun mundu honetako pertsonaia oso bereziak dira, lehen ere hala ziren eta gaur gehiago; zergatik bereziak?, ba gaur egun batere arrunta ez den bizimodua aukeratu eta bizi dutelako: bakardadean, xume, kontsumotik urrun... bizi dira.

Dena dela, gaurko artzaintza ez da garai batekoa, gaurko artzainen bizimodua ez da garai batekoena. Eta, noski, aldaketaren alde borrokan ari dira oraindik: ertaroan bezala bizitzen ez dute jarraitu nahi, eboluzioari heldu nahi diote.

Ez artzainen aurka nagoelako, ez bainago, baina *eboluzio* hitza aipatzen den bakoitzean kontraesanak sortzen zaizkit: noraino iristen da eboluzio sano eta beharrezkoa eta non hasten da eboluzioaren izenean txikizio itsua? Eboluzioari mugak jarri beharra dagoelakoan nago.

Ea adibideekin ulergarriago adierazten dudana esan nahi dudana. Mendizale-naturazale amorratu asko gaude, egunpasa mendira joan eta etxeko erosotasunak derrigorrezkoak ditugunak: puntarik puntanera joanda ere momentuan goxo prestatutako otordua jan nahi dugu. Tonto/tuntunak ez gara, noski! Horrek zer eskatzen digu, ordea? Ba gure gutuziak betetzeko beharrezkoak izango ditugu besteak beste, butanosua, lapikoak, jakiak, platerak, mahaia, mantela, aulkiak, edariak, hozgailua, itzalkia...

Horiek guztiak bizkarrean eramatea nekoso denez, giza-kiok hain gara bixkorrak, "jan-edan gutxiago eraman eta moldatuko gara behingoagatik!" pentsatu ordez, zera pentsatzen dugula: "pista-bide zahar hauek asfaltatu egin beharko lirarteke eta, hala, primeran ekarriko genituzke tresna guztiak autoetan. Noski, gu geure gutxiago nekatuta iritsiko ginarteke!..."

Aralar, turistak eta artzainak

Eta behin pentsatuz gero, pentsatzen duguna erabat "beharrezko" dugula sinesten dugu gizakiok. "Beharrezkoa" dena lortzen saiatzea zilegi denez, to!, hor goaz bi eskuei txistu eman eta behar den lekuan behar dena egitera. Ez al gara xelebreak?

Zoragarria da bizkarrean oinarritzko jan-edanak hartu eta belarretan, itzala bilatu eta itzalean, nahiz eguzkitan, kanguruaren gainean eseri, oinetakoak kendu eta otordua egitea...; otartekoa bezala etxetik prest eramandako entsalada, arroza, makarroiak... hotzak seguru asko, baina "puxka lehorra" jan beharrik ez dago derrigor. Zaborrak eta gainerako sobra guztiak bueltan ekarri eta mendia aurkitu dugun bezala uztea, geure ibilaldi-egonaldia- ren arrastorik utzi gabe etxera bueltatzea, ze gozatua den! Baina ez, Taiwanen lurrikarek txikizioa egin duten moduan, hemen guk geuk egiten dugu.

Guk, mendizaleok, naturazaleok, pasiatzaileok, azken finean mendiko turistok, eman behar diegu exenplua artzainei, mendiko biztanleei; aisialdira goazenok hasten bagara puntaneko erosotasunekin muntaia ikargarriak egiten gure mendi-txangoetan, zer ez ote dute eskatuko artzainek, bertan bizi eta lan egiten dutenek? Berehalaxe ditugu txabola guztietara eta bakoitzera bide asfaltatu eske, egunero eta egunean nahi adinatan kalera erraz jaisteko. Laister ditugu txaboletan ez direla kabitzen eta txalet eske...

Artzainek, ertaroan bezala ez, baina herrian eta hirian bizi garenok bezala ezin dute bizi.

Meritua dute, baina beraiek aukeratu duten bizimodu eta landagintzak eboluzionatu behar badu ere, natura errespetatu behar dute lehenengo eta behin. Txabolan itoginak izatea ez da ulergarria, baina ezta sukaldea, egongela, bainua, komuna eta hiru logelako txalet bihurtzea ere. Pista-biderik batere ez izatea ez da ulergarria, baina ezta txabola guztietara eta bakoitzera pista egitea, dena pistaz jostea, are gutxiago bide asfaltatuak egitea.

Pista kontu honetan, oraindik oso zaharrak ez garenok eza-gutu dugu Aralar txukun askoa. Gaur egun txikizio galantak eginak ditugu. Okerrena zera da, txikizioak aurrera jarraitzen duela, mugarik eta atsedetik gabe, geroz eta errazago, geroz eta ixilago. Artzainen aitzakiatan egin eta itxitutako ateak zabalik daudelako edota edonork duelako/lortzen duelako giltza, perretxikoak baino ugariagoak dira motorrak eta autoak Aralarko edozein gainetan.

Aralarren berandu baino lehen egin daitezken proiektu batzuk hauek dira: Abiadura Handiko Trena pasatzea, Lareon urbanizazioa, Lizarrustiko parketxeko lehen ere handia den aparkalekua gehiago handitzea, artzain txabola guztietara pista egitea... Proiektu horietan txikiena ere txikizio handia da mendiarentzat.

Nire iritziz, azken batean, Aralar izorratu behar badugu, bedi lehenengo artzainen mesedetan eta ez turiston mesedetan. Astakeriak ikusteko jaio ginen, astakeriak ikusten ari gara eta ikusteko gaudenak!!!



Iker Zubeldia

(Goierriko
Bertsu Eskolako
ikaslea)

Udaberria

Negu hotzari agur esanda martxoan du hasiera gure basoek eta zelaiek egiten dute hobera ia etxeko atarian da egun epelen bezpera guk nahi edo ez, garai honetan guztiok loratzen gera.

Guante bufanda ta berokiak denak bazterrera bota udaberriko eguzkiari luzatzen zaion erronka ona ez dela jakinda ere ez du batere inporta nahiz eta gero egoten garen buruko minak itota.

Botuen balioa

Neure lehen artikulutxo honetan ezin utzi aipatu gabe pasa berri diren hauteskundeak edota hobeki esanda, bizi izan dugun lurrikara. Azken batean, ez baitugu eguneroko ezagutuko horrelako astindurik.

Estatuan gertatutakoa aipatzea ez dakit merezi ote duen, PPren garaipenak denak utzi gaitu gorputz larriarekin eta bestetik, ezkerrearen akordioak sekulako porrota jasan du, batez ere, bere jendea bizkarra eman eta etxean geratu delako. Beraz, argi eta garbi esan daiteke, estatuari dagokionean, PPren garaipenaren ikusgarritasuna bere ioerari baino ezkerrekoen beherakadari esker izan dela.

Gure etxean ere izan dugu bai nolabaiteko astindua, PP izugarri igo da, abstentzioaren pisua ere dextente igo da batez ere herri txikietan (abstentzioa sustatu zutenek nahi baino gutxiago, hala ere) eta azkenik, EHren faltan, abertzaleen botuak EAJ-PNVren inguruan bildu dira nagusiki.

Bainan gaurko honetan ez nator hona hauteskunde ondorengo azterketa egitera, baizik eta hauteskunde hauetan, beste gainontzekoetan gertatzen denaren antzera, neure burua datorkidan gaia mahaigaineratzea.

Hauteskunde garaia heltzen denean eta politikoak botu bila herriz herri eta etxez etxe dabiltzanean eta hain zuzen ere, herri txikietara eta baserri giroko gunetara heltzen direnean hasten dira bertakoen aldeko goraipamenak eta lorak: zuek zarete benetazko Euskal Herria, zuek zarete gure herriko natura mantentzen duzutenak, zuek zarete euskara eta ohiturak gordetzen jakin duzutenak, etb. Esandakoak aztertzen hasiz gero, berehala konturatzen gara, politikoen hitzen artean, egi berdaderuekin batera betidanik entzun eta entzungo ditugun topikoak daudela.

Hori bai, hauteskundeak igaro eta gero, emaitzak aztertzeko garaia iristerakoan, baserri giroko herritarren botua jaso dutenak, lehen aipatutako topikoekin jarraitzen du, geure botuak besteenak baino gehiago balio balute bezala eta aldiz, herri txikitan indar gutxi duenak, hemengo botuen balioa gutxieteko, ikasketa gabeko jendea, baserritar madarikatu eta agintean dagoenaren aldetik erositako botuak direla esateko ere lotsa faltarik ez du; hirietako botu aurrerakoi, moderno eta informatuarekin kontrajarriz gainera. Are gehiago, beste autonomi batzuetako ezker-eskuin aukeraz gain, gure herri txiki eta hirien artean, abertzale eta Espainiazaleen indarrari dagokionean, hainbesteko aldea dagoenean.

Ez gaitzatela erabili, ez bere mesederako ez eta beren arteko sestrarako.



Xabier Iraola

OSTEOPATIA MEDIKU ZENTRUA

Rikardo San Vicente Dr. Koleg. Zkia. 4371

Pariseko Bobigny Unibertsitateko Medikuntza Fakultatean Osteopatian diplomatua

- ✖ **Lunbalgia, dorsalgia, zerbikalgia, sorbalda** mindu eta gainontzeko lokomotozio-aparatuaren arazo mekaniko-funtzionalen eskuzko medikuntza tratamendua.
- ✖ **Tendinitis, gihar, tendinoso eta gihar-eskeleto** arazoen elektromedikuntza bidezko tratamendua.

Ordutegia: 16:30etik 20:00etara. Aldez aurretik txanda eskatu

☎ 943 880 728 Garmendia Otaola 7 behea. BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



Pello Barandiaran
Gertu aholkularitza

Finantzetan adituak ez gare-nok, txundituta begiratu ohi diegu bi pezetara sartu eta hamar ateratzeko gai direnei. Hori beti erraza ez izan arren eta premisa gisa poltsikoa be-ro edukitzea eskatzen badu ere, badaude gaur egun merkatuan hainbat aukera. Batean edo bestean dirua sartzeko garaian ordea, bi faktore eduki beharko ditugu kontuan:

1.- Jasan nahi dugun arriskua: dirua seguru edukita bakarrik lo egiten duenaren eta arriskua gustuko duenaren aukerak ez dira berdinak izango.

2.- Inbertsio modura sartu nahi dugun diruaren beharra epe laburrean.

Esan bezala, merkatuak momentu honetan aukera ugari eskaintzen ditu:

Produktu tradizionalak:

Bitxiak, ondasun higiezi-nak (pisuak), lokalak..., auke-ra egokia izan daitezke, baina kontu handiz egin beharreko inbertsioak dira, bigarren erostun bat eskatzen baitute

Nola atera errentagarritasuna ditugun bi 'xoxei'?

beti inbertsio hori diru egiteko garaian.

Zuzenean burtsan

Burtsan kotizatzen duten en-trepresetan zuzenean inberti-tzea posible da, honetarako bideak geroz eta errazagoak direlarik (bankuak, internet bidez...). Aukera egokia egi-ten jakiteaz gain, inbertsioen jarraipen zuzena egitea beharrezkoa da, erabakiaren pisu guztia norberaren gain gera-tzen baita. Inbertsio hauetan aholkua eskatzen gomenda-tzen dizuegu.

Inbertsio fondoak

Burtsan jokatzeko duten inber-tsio fondoak daude momentu honetan pil-pilean. Hauen artean ere badira mota desberdi-netakoak:

a.- **Errenta finkokoak:** Hauek errentagarritasun ba-xua badute ere (%1,5 - % 2,5), epe laburrera jokatu nahi duenarentzat edota arris-kurik bere gain hartu nahi ez duenarentzat aproposak dira.

b.- **Errenta aldakorrek-oak:** Hauek errentagarritasun handia izan dezakete epe ertain-luzera (%10-%25), baina epe laburrean errentagarritasuna atera ahal izateko oso gainean egotea beharrezkoa da, burtsaren gora-beherak nabari jasaten baitituzte.

d.- **Mixtoak:** zati bat alda-korra eta beste zati bat finkoa

dutenak dira.

e.- **'Link' deituak:** Fondo batetik bestera aldatzeko au-kera ematen dutenak. Gestio aktiboa egin nahi izanez gero aukera paregabea dira. Erren-ta finkotik aldakorrera inongo zergarik ordaindu gabe alda-tzeko modua eskaintzen dute. Epe ertain-luzera errentaga-rritasun ona atera daiteke; burtsa goran dagoenean errenta finkora dirua aldatu eta beheran dagoenean erren-ta aldakorrera mugitu.

Aurrikuspenerako entitateak eta Pentsio fondoak

1999. urtean pensio fondo-entitateak etekina murriztu izan da eta zenbaitetan atzera ere egin dute. Hauek epe luzerako inbertsioak dira ordea. Azken urteetan izan duten portaera eta alor fiskalean duten trata-mendua kontuan hartzen ba-dugu, aukera bikaina izan dai-tezke.

Merkatuko datuei dagokie-nez, 1999. urtean errenta fin-koko fondoek ezer gutxi es-kaini duten bitartean errenta aldakorrekoko fondoek etekin egokia izan dute. Nabari ha-tzeman da, inbertsio gehienak errenta finkotik errenta alda-korrera pasa direla. Momentu honetan teknologia eta nazio-arteko burtsan jokatzeko duten inbertsio fondoak dira nagusi.

Lehiaketa

Galdera

**Zein goierritarrek
irabazi du pilotan
eskuz binaka
2. mailako
txapelketa?**

Erantzuna apirilaren 10erako bidali behar da, Ordiziako 124 posta-kutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz.

**Saria Bat Bitten eta
Eraso taldeen CD
bana eta
GOIERRITARRA-
ren kamiseta.**

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren erantzuna: Igartza saria.

**Irabazlea:
Alazne Iturriotz
Lauzirika
(Ordizia)**

Argitarapen honen edizioak laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*

Euskara txukunean

Kriston Martxa

Kriston martxa dute gazteek gaur egunekoek eta garai batekoek, gazetetasunaren beraren ezaugarri, non-bait. Eta hizkera bera ere berezia dute, bizia, gordina, gogorra zen-baitentzat. Hizkuntza guztietan modako hitzak eta espresioak sortzen dira ondorioz, baita euskararen ere, nahiz eta askotan hanka motz samar geratu gure hizkuntza alde horretatik.

Halere, euskaraz bada forma bat aspaldikoa, lehen esan dudan hori guztia betetzen duena, **kriston**, alegia, edo euskara batuan **kristoren**, kriston martxa duena. Lagun artean erabiltzeko egokia, bizia, gordina, gogorra... baina guar askotan gaizki erabiltzen dena. **Kriston ona da.** Ez jauna, **kriston ona** gaizki esanda dago. **Kriston** formak **handia** esan nahi du eta. **Kriston etxea**, **kriston mutila**, **kriston atsoa**, **kriston gezurrak**, **kristonak esan dizkigute**, horrela erabili behar dugu. Eta ez **kriston handia**, **kriston polita**, ea.,ea.

Kriston gora eta kriston behera, ez dakit zer kristo gertatzen zai-gun!

Maizpide Euskaltegia

Non daukazu txapela?

Salako apal batean, ez daukat bitrinarik.

Ikusi duzun pilotaririk onena?

Asko dira. Aurrelariak: Retegi eta Bergara. Atzelariak Tolosa eta Galarza

Gaur egun dagoen pilotari onena?

Aurrelariak: Titin eta Unanue. Atzelariak: Beloki eta Elkorro.

Pilota ofizo ala afizio?

Afizioa. Denbora asko kentzen duena gainera, entrenamenduak eta abar.

Gustuko pilotaleku bat?

Eibarkoa izan ezik beste edozein. Bergarakoa adibidez.

Gerriko gorria ala urdina?

Partidua izanez gero, berdin da.

Pilotalekua txuria ala berdea?

Hasieran aldaketa zela eta, berdea ez zitzaidan gustatzen. Orain berdea nahiago dut, baina ez edozein berde, iluna behar du.

Zu hasi zinenean pilotak ezberdinak al ziren?

Lehen fuertagoak ziren, handixeagoak eta pixu gehiagokoak. Jokua hobetzeko eta pilotaria ezinean ez ibiltzeko arindu egin dira. Arinegia ere ez da ona, eskutik ihes egiten du.

Pilotaz aparte, afizio bat?

Ez dut denborarik. Familiarekin egon nahi izaten dut denbora librean.

Zer jarri, zer kenduko zenioke Beasaini?

Pilota bakarrik erakusteko frontoi bat. Bestalde, berriz, obra gehiegi egiten dela iruditzen zait.

Amets bat?

Beasainek beste pilotari profesional bat edo gehiago izatea.



Juan Ramon Mendia

Beasaindar pilotaria
Eskuz binakako
txapelduna 2. mailan



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN



IBAI-ONDO

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g BEASAIN

Ugatzaren babesleen goi bilera egin da Lizarraustiko parketxean

"Gipuzkoak lan garrantzitsua dauka"

Ugatzaren babesleen goi bilera egin zen Lizarraustiko parketxean, martxoaren 16 eta 17an, . Gipuzkoa, Nafarroa, Aragoi, Katalunia eta Jaendik etorritako adituak izan ziren bertan, lurralde bakoitzeko egoera aztertu eta aurrera begirako planak zehazteko. Aurreko menderarte Europa osoan zabaldutako hegaztia bazen ere, azken urteotan Pirinioetan aurkitu izan du ugatzak babeslekua. Berreskurapen plan bereziari esker, ugatzak lurralde berrietara zabaltzen ari da. Guri dagokionari helduz, Nafarroatik Gipuzkoara ari da zabaltzen, Gipuzkoako mendirik altuenetan ugatzak asentatzen ari da. Mikel Olano Gipuzkoako Diputazioko Mendi Zerbitzuko basozainak eman dizkigu ugatzaren inguruko xehetasunak.

Garai batean Iberiar Penintsulan, Euskal Herrian eta Europan hegazti arrunta zen ugatzak. Mikel Olano basozainak jakitera eman digunez, "aurreko mendearen hasieran, pozoinak zirela eta, egur handia eman zitzaion. Arranoak eta horrelako hegaztiak hiltzeagatik ordaindu egiten zuten. Udal-letxetara hatzaparrekin joan eta ordaindu egiten zitzaion. Ugatzari ere hori pasa zitzaion. Beste alde bate-tik, ugatzak oso senti-bera da, oso baldintza bereziak behar ditu. Europa osoko popula-zioa Pirinioetan gordeta bezala gelditu zen, baldintza egokienak han zeuzkan, goi-ko mendietan salbu zen, jendea ez baitzen iristen... bere babeslekua hantxe aurkitu zuen".

Hain ugatz gutxi zegoela ikusita, Europan hainbat neurri hartu ziren, berresku-rapenarako plan berezia adostuz. Pirinioetan ugatzak suspertzen laguntzeko ahale-ginak hasi ziren. Plangintza fruitu baikorrak ematen ari

da. Era berean, baldintzak ere hobetzen joan dira Olano adierazi digunez. "Po-zoin asunto hori gelditu egin da, jendea piska bat kontzientziatu egin da, ehizta-riak ere bai... Baldintzak ho-betzen joan dira eta lagundu egin zaionez, ondo erreak-zionatu du".

Itxura denez, Nafarroa eta Gipuzkoako mugako mendiak gustuko dituzte ugatzek. Gipuzkoan bikote bat ia asentatzen ari da eta gehiago ere etortzen dira tarteka

Pirionetan asko ugaltu da eta Pirinioak txiki gelditu dira ugatzentzat. "Pirinioak betetzen joan diren eran, mendikate berriak bilatu behar izan dituzte. Aldamene-tara zabaltzen hasi da".

Goi mendietako hegaztia da ugatzak. Nafarroa eta Gipuzkoa mugan duela 10 bat urte hasi ziren ugatzak ikusi



eta bere pausoak kontrola-tzen. Gipuzkoako Diputazio-ko basozainek, Mikel Olano eta Tomas Aierbek hartu zu-ten beregain "adikzioa" sor-tzen duen lan hau.

Zubi lan garrantzitsua

Ugatzak Asturias eta Kanta-bria aldera, Picos de Europa aldera, zabaltzea da helbu-rua, Pirinioen antzeko ezau-garriak dituzten mendiak baitira. Helburu hau gauzatzeko, Euskal He-rriak jokatu beharreko papera oso garrantzitsua da basozainaren esanetan. "Hara joan aurretik Gipuz-koatik pasatu behar dute eta hemen baldintza onik ez ba-daukagu bertan hilko zaizki-gu. Gipuzkoatik Aragoi eta Bizkaira zabaldutako dira, eta handik Asturiasera. Hemen ondo zaindu behar ditugu".

Lurralde berri bila

Ugatz bikoteek lurraldea aur-kitu eta beraien eremua fin-katzen dute. Itxura denez, Nafarroa eta Gipuzkoako mugako mendiak gustuko di-

tuzte ugatzek. Gipuzkoan bi-kote bat ia asentatzen ari da eta gehiago ere etortzen dira tarteka. Euskal Herri osoan 11 bat bikote daudela uste dute adituek. Olanoren esa-netan, bi ugatz bikoterentza-ko leku egokia izan daiteke Gipuzkoa.

30 urte

30 bat urtean bizi izaten dira ugatzak. 7 urterekin iristen dira heldutasunera. Umatzen hastea kostatzen zaie, batzuk 11 urte arte ez dira hasten. Oraisindik arrazoi jakinik ez badago ere, kume asko galdu egiten zaizkie.

Bikotea urri-azaro aldera-ko bere lurraldea markatzen hasten da, zeloan sartuz, eta habia egiten hasten dira. Abendu-otsaila bitartean, arrautza edo arrautzak jar-tzen dituzte. 54-58 egun be-har izaten dituzte kumeak jaiotzeko. Normalean, bi jaiotz gero, bat hil egiten da edo hil egiten dute. Txitak jaiotz gero, 120 egunera, habitik salto egiten du. Salto egin eta

ugatzaren berreskurapenean"

lehenengo hilabeteetan helduek jana ematen diete baina berriro hurrengo umaldiko garaia datorrenean, kumeei ez die jaramonik egiten. "Lurralde berri bat bikote heldu batek okupatzeko, denbora asko behar da. Lehenengo, gazteak lurralde bila hasi behar dira. Bueltaka ibili, lekuren bat gustatzen hasi, heldu izaten joan eta behin helduak direnean bikotea aurkitu behar dute. Prozesua oso geldoa da", argitu du Olanok.

Ez dira migratzaileak. "Ugatz gazteak lurralde berrien bila joaten dira baina ez dute migratzen. Sedentarioak dira", argitu du Olanok.

Hegazti ederra

Hegazti ederrak omen dira, heldutasunera iristen direnean bereziki. Gaztetan beltzak izaten dira eta piskanaka, paparra, lepoa eta burua gorrihoritzen joaten zaie. "Heldu izatera iritsi arte, urte bakoitzean kolore ezberdina izaten dute ugatzek". Begiak oso bereziak dituzte, ingurune gorria nabarmena dutelarik. Hegazti handia da. Hegalak zabaldua 2,5 - 3 metro izaten ditu. Isatsa luzea du, erronbo itxurakoa.

Hezur jalea da ugatza. Animalia txiki karraskariak ere gustatzen zaizkio. Saiak ugaltzarekin zerikusia badu ugatzaren ugaltzeak. "Ugatzek saiak behar dituzte. Ugatzak hezurjaleak dira. Animalia bat hezurretan uzteko, aurretik haragia jango duen norbait behar da".



Berreskurapen plana

Gipuzkoako Foru Aldundia ugatzaren berreskurapen planean murgilduta dago. Planaren arabera, segimen berezia egiten die Gipuzkoa aldean dabilzan ugatzek. Zenbat ugatz dabilzan, nolakoak diren, lo egiten non gelditzen diren... aztertzen dituzte. Teleskopio bidez egiten dute jarraipena, urrutu samarretik, izutu ez daitezten.

Gipuzkoan ez da oraindik umaldirik izan baina gainerako lurraldeetan, habian daudenean markatu egiten dituzte ugatzak, kontrol egokia egiteko. "Nora mugitzen diren jakiten dugu markatuta. Txip bat ere jartzen zaie orain eta satellite bidez kontrolatzen dira. Egunero jakin daiteke non dauden. Orain, hiltzen badira, hori ere kontrolatu egiten da eta aurkitu egiten dira. Bestela inor ez litzaiteke enteratuko".

Planaren beste egiteko bat, jana jartzea da. "Negu partean arazoak izaten dituzte. Uda partean ardi asko egoten da mendian eta beti hiltzen dira ardiak eta jan arazorik ez dute izaten. Baina neguan mendian ez da ganadurik ibiltzen. Beraz, lagundu egiten zaio ugatzari, jana jarritz. Habitik alde egiten duten ugatz gazteentzat ere laguntza

handikoak izaten dira jantokiak, gazteak galduta bezala ibiltzen baitira".

Oraindik ere arriskuan

Planak bide onetik doaz, irakurketa positiboa egiten du Mikel Olanok. Baina oraindik ere arriskuak ikusten ditu basozainak. "Egia da plangintza ondo doala eta ugaltzen ari dela. Baina oso sentibera da eta edozein akzioa oso kaltegarria izan daiteke. Ikusi da zenbait lekutan pozoina berriro azaltzen hasi dela. Hasi dira lehenengo ugatzak hiltzen. Pozoinaz gain beste arrisku batzuk baditu ugatzak: elektrizitate kableak eta lasaitasun eza adibidez. Goi mendiko hegaztiak dira eta lasaitasuna behar dute eta gero eta modago dago parapentea dela, eskalatzea, mendizaleak... ez daukate ezer ziurtatuta ugatzek. Jendea kontzientziatuta dago natura zaintzeko. Baina hemengo mendietan, nahiz eta ekologistak izan, nahi gabe edo ezjakintasunez, kalte handiak egiten dira. Eta ugatzek beraien txokoak, beraien intimitatea behar dute. Pakean utzi behar zaie eta hemen dagoen arazoetariko bat hori da, pake gutxi dagoela".

Martxoaren 8an inauguratu ziren ofizialki Agauntza ibaiaren egokitze lanak Ataun eta Lazkaon



Martxoaren 8an Agauntza ibaian egindako 3 lanen inaugurazioa izan zen, bat Lazkaon eta bi Ataunen.

Agauntza ibaiak Lazkao-ko herrigunea zeharkatzean 3,5 metroko presa zuen. Honek bi eragozpen sortzen zituen: alde batetik uholdea izaten zenean urak gainezka egiten zuela eta bestetik, ibai-ko faunarentzat oztopoa zela. Arazoari irtenbidea emateko presaren altura jais-tea pentsatu zen. Bide batez, landaketak, mailak eta ibai-rako sarrerak egitea erabaki zen.

Herrigunean Agauntzaren arroak 85,4 km²-ko azalera du eta 258,6 m³/s-ko ur emari-arentzat egokitu da. Urak gainezka ez egiteko presaren altuera 0,80 metroan jaitsi da. Presatik gora bi hormen egoera ikusita hauek sendotu

dira 360 metroko luzeran ibairen bi aldeetan. Bi alde hauetan harri-lubeta edo eskollera bana egin dira ibai-ko faunaren babesleku izan da-
din eta hauen gainean 1,5 metroko zabalera landake-
tak egin dira. Honez gain 0,5 m.-ko altuerako bi presa egin dira, hauek ur lamina bat sor-
tzen dute eta ez die arrainei oztoporik sortzen.

Presa zaharrean arrainen-
tzat pasabide bat egin da. Zig-zag eran jarritako 10 sal-
to txiki ditu, bakoitza 0,3m.-
takoa. Presatik behera 0,5 m.-tako beste bi presa egin dira eta mantenimendu lane-
tarako sarbide bat ere bai.

Aurrekontua 91 milioi pe-
zetakoa izan da, %75a Gar-
raio eta Eusko Jaurlaritzako
Garraio eta Herrilan sailak
jarri du eta %25a Gipuzko-
ko Foru Aldundiak.

Aitzarte eta Agauntza Ataun San Martinen

Lehen Aitzarte erreka Agauntzarekin bat egin aurretik bi bihurgune zituen eta errepidea pasa ondoren Iztator Berri ba-
serriaren azpitik pasatzen zen. Ondoren Agauntzarekin bat
egiten zuen gunean uholdeetan urak gainezka egiten zuen.
Arazo hauek ekiditzeko bide berria egin zaio errekarari azken
220 metroetan. Guztira 5,8 km²-ko azalera du eta 47 m³/sg-
ko emariarentzat egokitu da, horretarako 4 m.-ko zabalera
eta 2,2 m.-ko altuera eman zaio. Hemen zubi bat eta oinez-
koentzako zubi txikia egin dira.



Agauntza ibaia Ataun San Gregorion

San Gregorio auzoan Agauntza erreka 90 graduko bihurgu-
nea zuen. Hemen gainezka egiten zuen uholde garaietan. Ho-
nez gain bertan sortzen zen higadurak arriskutan jartzen zuen
bertan dagoen etxe bat. Lanak ibaiaren 276 metroan egin di-
ra. Guztira 51,8 km²-ko azalera du eta 223,8 m³/sg-ko ema-
riarentzat egokitu da, horretarako 13 m.-ko zabalera eta 4 m.-
ko altuera eman zaio. Ibaiaren ezker aldean lehengoa baino
erradio handigoko ormigoizko horma egin da eta eskuin al-
dean 2 m.-ko altuerako harri-lubeta jarri da.

Ataungo bi lan hauek egiteko aurrekontua 90 milioi pe-
zetakoa izan da, %75a Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri-
lan sailak jarri du eta %25a Gipuzkoako Foru Aldundiak.



AUSG EGI

Urdaneta, 41
C-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✱ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✱ Berogailuak
- ✱ Iturgintza
- ✱ Zeramika erakusketa
- ✱ Bainuko altzariak
- ✱ Erreforma osoak



Goierriko hamaika gazteren aurkako epaiketa, BBVren aurrean konzentratzeagatik

Martxoaren 21ean Goierriko hamaika gazteren aurkako epaiketa izan zen Tolosan, falta edo hutsegite publikoaren salaketapean. Iazko abenduaren 30ean Beasaingo BBV banketxearen atean kateatu eta inguruan 'Banketxeak lapurrak' lelopean konzentrazioa egin zutelako epaitu dituzte gazteak. Jarrai egiten ari den 'Gutxi batzuen aberastasuna gu guztion miseria' kanpainaren barruan kokatu zuten ekintza hau.

Epaituak harrিতuta azaldu dira "ekintza baketsu eta simboliko soil baten ondorioz epaitegiatara eramateagatik". Ministeritza Fiskalaren, Ertzaintzaren bitartez, iritsi da salaketa epaitegiatara, Falta edo hutsegite publikoaren salaketapean. Epaituek galdera bat luzatu nahi dio Ertzaintzari: "ea zergatik duen Ertzaintzak horrelako interesa gazteak epaitegiatara eramateko, gutxi batzuen interesak bermatuz?"



11 gazteak epaitzen ari ziren bitartean, konzentrazioa egin zen Tolosako epaitegiaren aurrean.

Gazteen miseria

'Gutxi batzuen aberastasuna gu guztion miseria' kanpainaren barruan ekintza ugari egin izan dituzte gazteek. Protestaldi hauen arrazoiak zehaztu dizkigute. "Egun Euskal Herrian bizi dugun egoera sozio-ekonomikoa, bultzatu gaitu. Ikusi besterik ez baitago egunetik egunera gutxi batzuk geroz eta aberatsagoak direla eta gizartearen gehiengoa pobreziarantz bideratua dagoela. Eta alor honetan emakumeekin batera gazteak gara prekarietateak kolpatzen gaituen lehen sektorea".

Abenduaren 30ean BBV banketxea aukeratu zuten beraien protesta egiteko. Ban-

ketxeen irabaziak salatu nahi izan zituzten. "Alde batetik banketxeek pasa den urtean beren irabazien %16ko igoe-ra izan dute alegia 551.600.000 pzt irabazi zituztela gizartearen kontura. Eta irabazi hauen %75a Ybarra (BBVko lehendakaria) eta Botinen (BCHS lehendakaria) eskuetan pilitzen dira", argitu digute.

Dena den, "gure ekimen hau BBV banketxean egin bagenu ere, ez dira banketxeak soilik gazteria miseria-konstatzen dutenak; hor daude inmobiliaria espekulatzaileak, hor ETT esklabistak, hor enpresa odol zurru-patzaileak edota enpresari esplotatzaileak. Denek be-

raien aportazioa egiten diote sistema honi gazteria ongi lotuta izaten, sistema honek behar duena gazteri sumisioa lortuz eta etsipenera bideratuz, beraien morroi diren komunikabideak erabiliz".

Borroka aurrera

11 lagun epaituko badituzte ere, borrokarekin aurrera jarraituko dutela azpimarratu digute. "Garbi dugu eredu sozio-ekonomiko honek, gazte oro miseria-konstatzen duela beraz guk nahi dugun biharko Euskal Herri aske batean duintasunez bizi eta lan egin ahal izateko gaur borrokatu beharra daukagula. Ez dezatela pentsa epaiketa batek isilaraziko gaituenik, azken batean errealitate gordinaren islada besterik ez baita izango".

Epaiketa honen aurrean, martxoaren 17tik 24ra bitartean protestaldi ugari egin dituzte. Gaur, martxoak 24, Borroka Eguna izendatu dute irakaskuntza arloan. 10,30etan Ordiziako BBVren aurrean konzentrazioa zuten egiteko. 12etan, Goierri bitarteko manifestazioa egiteko asmoa daukate. Arratsaldean berri, 6etan, Ikaslanen aurrean bilkura eta 7,30etan Beasainen manifestazioa.

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOEGIA

Arraiak parrilan

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA



PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420995

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



Etxebizitzak eta industria ugaritzen

Atzean geratu dira, herrian, urteko etxebizitza bakarria eraikitzen zireneko garaiak. Azken hilabeteetako joera erabat ezberdina da. Bukatze- ar eta hastear dauden eraiki- nak kontatuz gero, denbora gutxi barru 60tik gora bizito- ki berri egongo dira Idiazaba- len. Industriari eskainitako azalera ere handitzen ari da, laister Goardiko industri gu- neak, orain halako bi azalera izango du.

Etxebizitza berriak Zigor eta Adarra auzoetan ari dira egiten. Zigorren, udarako egongo dira bukatuta Udale- txearen parte-hartzearekin egiten ari diren 16 aparta- mentuak. Eraikin horren al- boan, Igarondoko terrenoetan beste 15 pisu egiteko lizen-

tzia eskuratu du dagoeneko enpresa batek. Zigorren ber- tan 12 txalet adosatu eraiki- tzeko lanak berehala hasiko dira. Etxebizitzekin batera, Zigor auzoa urbanizatze- ko lanen lehendabiziko fasea ere abian da. Udalak hartuko du bere gain zati horren urbi- nazioa lurra publikoa baita. Bigarren faseko urbanizazio lanak oraindik hasi gabe dau- de, eremu publikoa eta pribatua nahasian baitaude. Uda- lak auzokideekin bigarren fa- seko proiektua aurrera erama- teko modua adostu nahi du. Bi urteren buruan lanak buka- tuta egotea espero da.

"Goiko barrioan" Pilar Enea alboko 12 pisuak ere oso aurreratuta daude. Ada- rran beste 16 apartamentu



Mediku kontsulta

Berehala hasiko dira medikuaren kontsulta berritzen. 6 hila- beteren buruan lanak bukatuta egotea espero du Udalak. Bi- tarte horretan medikua eta praktikantea Axari jantzi dendak lehen Farmazia ondoan zuen lokalean egongo dira.

Kafe antzerkia

Kultura batzordeak eta herriko tabernariak elkarlanean kafe antzoki emanaldiak antolatzen ari dira. Honenbestez, datozen hilabeteetan herriko tabernetan antzerkiak eta bestelako ema- naldiak ikusteko aukera izango da. Lehendabizikoa Xaloe ka- fetegian apirilaren 14an.

Hauteskundeetako emaitzak

Martoxaren 12ko hauteskundeek ondoko emaitzak utzi ditu- te herrian:

	2000	1996
Zentsua	1722	1635
Abstentzioa	%46,3	%28
EA	429	442
PNV	326	275
EH	-	251
PP	97	81
PSE-EE	44	62
IU/EB	10	31
Besteak	2	5

izango dituen eraikinerako lan- nak hasita daude. Denbora gutxi barru hasiko dira gaine- ra 5 txalet adosatu egiten au- zo horretan.


Etxebizitzak bakarrik ez, industriak ere goranzko joera du. Udalak, Goardiko poligo- noa handitzeko asmoa du. Horretarako, orain industri guneak dituen 30 mila metro- ei beste 25 mila erantsiko diz- kiote. Udalak gainera industri gunera doazen bideak hobetu nahi ditu. Lehen urrats gisa, Diputazioak Jilimoneko bide- gurutzeta egokituko du. Bi etxebizitza botako dituzte Se- gura eta Zegamarako bideak Idiazabalgoarekin bat egiten

duen leku hori hobetu ahal izateko.

Pilotalekuaren eta tabernaren arduraduna

Udalak Pilotaleku eta inguru- ko instalazioen mantenimen- dua eta tabernako arduraduna aukeratzeko deialdia egin du. Baldintzak: 18 urte beteta izatea, euskararen ahoko erabilera menderatzea eta hautatuak egun guztiko zerbi- tzua betetzeko prest egotea. Zerbitzua zer nolako taldea- rekin eramango duen adierazi behar da. Interesatuak dei udaletxera.

Xabier Urteaga



ondoeta

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Hainbat turismo ekimenen aurkezpena



Aurrikusita bezala San Bartolome ermitan burutu zen prentsaurrekoa eta bertan Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiko ordezkari garrantzitsuak izan genituen. Mari Karmen Garmendia (Jaurlaritzako Kultura Sailburua), Koro Garmendia (Jaurlaritzako Turismo Sailburua), Jose Ramon Beloki (Ekonomia eta Turismo Diputatua) eta Jon Mikel Murua (Nekazaritza eta Ingurugiro Diputatua); Alejandra Iturrioz (Goiekiko Lehendakaria), Juan Manuel Barandiaran (Goiekiko Zuzendaria) eta Nikolas Osinalde (Goiturreko arduraduna).

Hauek gain, proiektu berri hauetan sinistu eta parte hartu duten agente pribatuak ere bertan izan ziren (ostalaritza-erakundeak barne) eta baita turismo bulegoetako arduradun eta eskualdeko alkateak ere. Nikolas Osinaldek eman zuen produktu berri hauen berri, eta Mari Karmen Garmendia hitzak ere izan genituen. Garmendiak, Goierriko natur ingurunea baliabide turistiko garrantzitsua dela azpimarratu zuen.

Zegamaren kasuan, Dinti Barrena baserrian, landa giroko ostatu bat egokitzen ari di-

ra. Barnekaldeko turismoaren garapenaren aurrean zenbait ekimen pribatu martxan jarri dira Goierri eta horietako bat Zegamako Dinti Barrena baserriaren berreskurapena da. Ekimen pribatuaren bidez, ondare hau ez galtzeaz gain, bertan ostatu egokitu-ko dira, era honetara Zegama turismoaren destino bilakatzearen bidean jarri delarik. Badirudi Zegaman dauden haibat eta hainbat baserrik haxe luketela bizirauteko irtenbideetarikoa bat.

Pintura ikastaroa

Kultur etxeko Batzordeak, azken bileran, besteak beste, helduentzako pintura ikastaroa antolatzea erabaki zuen. Irakaslea Maria Luisa Gorrotxategi zegamarrak emango du eta 30 orduko iraupena

III. munduari buruzko erakusketa

Zegamako Parrokiak, Hirugarren mundura gerturatze asmoz, honi buruzko erakusketa antolatu du. Erakusketa hau Elizbarrutiko Misioen 50. urteurrena dela eta dago eginda eta Zegaman bertan ikusteko aukera izango dugu. 4 urtetik 12 urte bitarteko ikasle eta 3. munduaz interesatuta dauden guztiei dago zuzendua. Pilotalekuko gimnasioan izango da ikusgai apirilaren 2tik 9ra. Orduetegiak: astelehenetik ostiralera, 15:00etatik 18:00etara; larunbatetan 17:00etatik 19:00etara; eta igandetan 12:00etatik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara. Gai honi buruzko hitzaldiren bat ere antolatu nahi da. Beraz, eguna eta ordua jakinaraziko da.

LABURREAN

Frontenis txapelketa

Martxoaren 25 eta 26an Udak Kirol Batzordeak antolatutako Frontenis txapelketako finalak jokatu dira pilotalekuan. Orduetegiak ikus eskuprograman. 3. eta 4. postuak hnako hauek jokatu dute: Urko Agirre-Urko Egimendia Aitor-Bitarte-Aritz Toledoren aurka. 1. eta 2. postuak: Aritz Irastorza-Xabier Agirre Igor Elizegi -Asier Berasategiren aurka.

Immersorekin oporraldia

Adinekoentzako Oporraldi Programa zabaldu du Immersok. 2000-2001 kanpaina honetan parte hartu ahal izateko, beti bezala, Udalean Gizarte Zerbitzu Departamentuan, astelehen eta asteartetan, 9etatik 2etara, eskaerak egin ahal izango dira. Eskaerak egiteko epea apirilaren 15ean bukatuko da.

Saharara ko atun lata biltza arrakastatsua

Udaleko Ongizate Batzordetik, Saharako herriari atun lata bidaltzeko asmoz egindako eske deia dela eta, herritarrei, agertutako borondate paregabea eskertu nahi die.

Energia aurrezteko inbertsioak

Udalak, argindar publikoa aurrezteko asmoz zenbait inbertsio burutu ditu, horietako bat, aparailu elektriko berri bat jartzea izan da. Honen bidez, %20tik %40rako aurrezpena espero da argindarretan.

Nikolas Zabaleta

Otsailaren 25ean, Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoaren Lehendakari izendatu zuten.

izango du. Izen ematea udaletxean egin behar da, martxoaren 27tik apirilaren 7ra bitartean. Eguna eta ordutegia izena emandakoen artean erabakiko da.

Kultur etxeko Batzordeak bestalde, eskaner bat erosteko erabakia hartu du. Bere asmoa zegamarrok utzitako argazkiak eskaneatuta gordetzea da. Beraz, argazki zaharrik baduzu, kultur etxean gustura hartuko dizkizugu.

Txirrin-Txarran Lezon

13. Txirrin-Txarran eguna ospatuko da Lezon, apirilaren 9an, 'Bateginik Txirrin-Txarran bizirik' lemapean. Gipuzkoako 12-15 urteko astialdeko taldeak elkartzeko eguna izaten da Txirrin-Txarran. Hori dela eta, gazte guztiei gonbidapena luzatzen dizue 'Aizkorriko beleak' astitaldekoek. Plazatik autobusa aterako da goizeko 9etan. 6.30etan izango da itzulera. Autobusa dohainik izango da eta norberak bere bazkaria eraman beharko du. 'Aizkorriko beleak' asti taldeko 4 begiraleak bertan izango dira. Izena emateko epea martxoaren 27an bukatuko da. Amaia Urbizu (943801450); Maider Azurmendi (943800189); Arrate eta Izaskun Igoa (943801182).

Edurne Albizu

Imsero

Urtero antolatzen den Adinekoentzako Oporraldi Programa zabalduko da. 2000-01 kanpaina parte hartzeko, udaletxeko gizarte zerbitzu departamenduan asteazken eta ostiraletan goizeko 9etatik 2etara egin ahal izango dira eskaerak. Epea zabalik apirilaren 15era arte.

Bola Seguran

Goierriko txapelketak dituen 9 jardunaldietatik 3.a Seguran jokatu da, bihar, martxoak 25, Txoritegi bolalekuan, goizez 11,30etatik 12,30etara eta arratsalde 4,30etatik 5,30etara.

Imanol Agirre, Olaberriako 'Joxe Kerejeta' ren omeneko bola saioan irabazle gelditu zen 6 botalditan 36 birla joaz. 2. Xepeño Agirrek egin zuen. Goierriko txapelketan, martxoaren 18an, Mutiloan 2. geratu zen Imanol.

Bestalde, Gipuzkoako txapelketan, 8 jardunaldiren ondoren eta 3ren faltan, 1go postuan jarraitzen du.



Errealarekin Soriara

'Egoera txarretan izan behar da zalea' lemapean, Txanbolinpe peñak Errealak apirilaren 9an Numanciaren kontra jokatu duen partidarako autobusa antolatu du. Izen ematea martxoaren 28a baino lehen Imazenean.

Bi herritar rock talde batean

Ibai Gonzalez eta Ibai Telleria 'Naftena' taldeko bateria eta ahotsa dira. Gainerakoek, Ataun, Zegama eta Ordiziako banak, kitarak eta baxua jotzen dituzte.

Bostak, klase berean dabilta Goierrri eskolan. Batak bateria jotzen zuela, besteak baxua edo kitarra, binaka, hirunaka... hasi ziren zerbait asmatu eta jotzen. Gaur, beraiek osatutako musika eta letrak 12 abesti dituzte. Entsaiautxo kideetako baten garajearen egiten dute astean behin edo bitan. Pasa den San Juanetan Seguran debutatu zutenetik 7 kontzertu eman dituzte,



Ibai Telleria eta Ibai Gonzalezek Iparra-Hegoaren barruan larunbatean emango dute kontzertua Seguran.

oaren propietate bat) izena topatu eta hortik moldatu zuten 'Naftena'.

gehienak Goierrin eta Tolosaldean, herrietako festetan. Rock gogorra egiten dute eta afari edo zerbeza batzuren truke ari dira momentuz. Arazorik handienetakoa kontzertuetara instrumentuak karreaztearena da. Hau, lagun batzuei esker egin izan dute, Seguratik 3 buelta ere eginez. Mikroak eta instrumenturen bat erosteko inbertsioak ere egin dituzte dirua poltsikotik jarritz edota errifak ateraz ere bai. Taldearen izena, kasualitatez jarritakoa da. Izen baten bila zebiltzala, teknologiako liburua ireki eta nafta (petroleo bat) izena topatu eta hortik

Kirol eskolarra

Pelota partiduak: martxoaren 25ean Baratze pelotalekuan. 9:30etan, alebinak, (Laiotz C - Ugara), 10:00etan benjaminak (Laiotz - San Benito), 10:30ean, infantilak (Loinazpe - San Benito).

Atletismoa: neska eta mutil benjaminak. Ordizian, martxoaren 25ean.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Preferentea: Aretxabaleta 2 - 2 Segura. Jubenilak: Segura 1 - 1 Pasajes. Kadeteak: Aizkorri 2 - 2 Zestoa. Infantilak: Urola 2 - 3 Aizkorri.

Asteburuan etxean: Preferentea: Segura - Hondarribi, zapatuan, 18:00etan. Infantilak: Aizkorri - Añorga, jaietan, 11:30ean.

Labur-labur

● **Sahararako laguntza.** Herriko bi dendatan jarri ziren kajak atun lataz betetzea lortu zen.

● Ardixarraren obrak.

Udalak jaso duen subentzio bati esker, minimoki erabiltzeko moduan jarriko du etxea. Argi eta ur instalazioa, eskailerak eta komuna egingo dira.

● Atsedeen jubilatuen elkarteak batzar nagusia.

Martxoaren 26an, 12:30ean. Ondoren janaurrekoa.

● **Elorri K.E.ak antolatutako Iparra-Hegoa dela eta,** asteburu bete-betea dugu. Informazioa 24 eta 25 orrialdeetan.

Joseba Telleria



Udaletxe aurrean egin den plaza xoxa aurki da inauguratzeko. Izen egokia jartzearen Udalak Aranzadiri gune horri legokiokkeen izenaren inguruan ikertzeko agindu dio.

Euskaraz buru-belarri

Apirilarekin batera hasiera emango zaio Lazkoako X. Kulturaldiari. Hori dela eta, ekintzaz beterik datorkigu hurrengo hilabeteko bigarren astea. Apirilaren 10etik 15era luzatuko den egitarauari ikastolan burutuko den Antzarren X. Bertso-Paperen banaketak emango dio hasiera. Ondoren, solasaldi bat izango da Kultur Etxean. 'Nor zen Frantzisko Areso Tolosa?' lemapean Nerea Muruamendiaraz entzuteko aukera izango dugu arratsaldeko 7,30etan. Apirilaren 11n haurrak izango dira protagonista, beraientzako jolasak antolatu baitira plazan. Jolas hauek Maizpideko ikasleekin batera burutuko dira eta arratsaldeko 4,30etan hasiko dira.

Asteazkenean, 12an, berriz, Goierriko Bertso Eskolako ikasleen saio batekin emango zaio hasiera arratsaldeari. San Benito Ikastolan aurkeztuko den bertso saio hau 2,30etan hasiko da. Arratsadeari jarraipena emateko, argazki erakusta batez gozatzeko aukera izango da

Kultur Etxean. 'Hiru pausu, hiru norabide'. Ondoren, Maizpidera abiatu ahal izango dugu lazkaotarrak. Bertan, Josu Iztuetak diaporama bat aurkeztuko baitu gaueko bederatzieta. Ikusentzunezko honen izenburua erakusketaren berdina izango da; 'Hiru pauso, hiru norabide', alegia.

San Benito Ikastolako Haurren Jaialdia ostegunean, 13an, izango da Maizpiden. Arratsaldeko 3etan hasiko den jaialdi honi, 2000ko San Prudentzio festetako Eranskailuaren aurkezpenak eta banaketak jarraituko dio. Bostetan hasiko den ekitaldi hau kalean, tabernetan zein dendetan ikusteko aukera izango dugu lazkaotarrok.

Liburu eguna

Azkenik, apirilaren 14 eta 15ean "Liburua-buru" egunak ospatuko dira. Hori dela eta, ostiralean Gerriko Liburudendan erositako liburuek %10eko deskontua izango dute. Bestalde, egun osoan zehar ordu desberdientan hainbat libururen zatiak ira-



Errekako lanen inaugurazioa

Errekako berritze lanak aspalditxo bukatu baziren ere martxoaren 8an inauguratu ziren ofizialki. Bertan izan ziren Alvaro Aman Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Kontseilaria eta Jon Buesa Eusko Jaurlaritzako Ur Zuzendaria. Herriko alkate eta hainbat zinegotziren laguntzarekin egindako lana ikusten izan ziren.

kurriko dira, megafoni bidez plazatik entzuteko. Horrez gain, liburuska eta liburu baten aurkezpenak ere egingo dira. 'Lazkaotarrak idazle, II', hainbat lazkaotarrek egindako idazlanen bitartez osatutako liburuska da. Liburua berriz, Andoni Sarriegi Eskisabalek aurkeztuko du; 'Alfabetatzearen hastapenak Goierri. Aurresaioak eta 1967tik 1975erakoak'. Gerriko liburudendan izango da arratsaldeko zortziretan.

Kulturaldiari amaiera emateko, apirilaren 15ean beneditarren liburutegira bisitaldia antolatu da. Bisita hau burutzea interesatzen

zaien lazkaotarrek apirilaren 13a baino lehenago eman beharko dute izena Gerriko liburudendan.

Bi hitzaldi Maizpiden

Martxoaren 28an Eneko Agirrek zuzenduta 'Euskal Herriko lehenengo lurralde kontinentalaren sorrera eta bilakaera Artikutzako barrutian oinarrituz' hitzaldia entzuteko aukera izango dugu.

Apirilaren 5ean berriz, 'Euskal Herriko ibaien ekologiari'-ri buruz daukagun informazioa sakontzeko aukera emango digu Joxe Ramon Diezek.

Elordi Garzia

IX. Gerriko Ikerlan sariketa

Aurtengo ediziora lan bakarra aurkeztu da; 'Goierriko hizkeraren kokapenerako. Goierriko hizkera Toloserriko hizkerarekiko harremanetan: zengati ezaugarriren nolakotasunaz eta hedaduraz'. Ikerlana aztertuko duten epaimahaia sariketa antolatzen duten hiru erakundeek orain erabakiko dute, hau da, Maizpidek, Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordeak eta Goierriko Euskal Eskolak. Epaimahaiak behin betiko erabakiaren berri maiatzaren 26an emango du eta ondoren egileak nortzuk diren jakin ahal izango da.

Ikerlana saritua izateak argitaragarria dela esanahi du; beraz, dirua jasotzeko ikertzaileak bere lana argitaratzeko behar diren ikerketa guztiak egingo dituela onartu behar du. Sariak ekainaren 9an banatuko dira Lazkaoko Udaletxean, nahiz eta, saridunik ere ez izatea beste aukera bat izan.

Bi mozio plenoan

Lazkaoko Udaletxean egin zen azken plenoan bi mozio aurkeztu ziren; bata EAJ-EA koalizioak, bestea berriz, EH-k.

Lehenengoa, Donostiako Intxaurren auzoan izandako atentatuaren aurrean gaitzespena adierazteko izan zen. Horrelako egoeren aurrean irtenbide bakarra elkarriketan sakontzea dela azpimarratzen zen bertan. Mozio hau EAJ-EA eta PSOE-ren botoekin onartua izan zen.

Bigarrena, aldiz, Ruben Garateren heriotzaren inguruko deklarazio instituzionala izan zen. Agiri horren bitartez, euskal presoen aurkako sakabanaketa politika, pertsonaren duintasunaren aurka eraso egiteaz gain, sufrimendua, krispazioa eta krudelkeria eraginez, presoen senide eta lagunen aurkako zigor gehigarriaren adierazpena dela ziurtatzen zen. EH eta EAJ-EA koalizioaren botoekin onartu zen mozio hau.

Gaia: Ataun

Halaxe da. Aurtengoan ere Ataun Aztergai Bekaren eta Argazki Lehiaketaren deialdia zabaldu du Udalak.

VI. Ataun Aztergai Beka

VI. Ataun Aztergai Bekarako gure herria gaitzat harturik, Ataun bere arlo desberdinetan aztertzen eta lantzen duten lanak aurkeztu ahal izango dira: historikoak, etnologikoak, soziologikoak, pertsonaiak...

Lan hau burutzeko beka jaso nahi duenak, 2.000.eko apirilaren 29a baino lehen aurkeztu beharko du lanaren proiektua Ataungo Udaletxean. Beka 200.000 pezetakoa izango da eta lanaren amaieran emango zaio egileari. Ikerlanak gutxienez 50 orrialde izan beharko ditu eta 150 gehienez. Aukeratutako lana 2.000.eko abenduaren 15erako guztiz amaitua eta Udalaren esku egon behar du. Epaimahaia honakook osatuko dute: Kultura batzordeko arduradunak, JM Barandiaran Ikastetxeko zuzendariak, Kultur elkarte eta alderdi politikoetako ordezkariak eta adituek.

Proiektua aurkezteko interes duten orok, Udaletxean jaso beharko dituzue beharrezkoak diren kartazal eta fitxak.

Argazki Lehiaketa 2000

Aldi berean, zabaldu da Argazki Lehiaketa 2000ren deialdia ere. Ataunen aurki daitezkeen gai berezi edota erakargarrienak erakustea da lehiaketa honen helburu nagusia. Lagungarri gisa, besteak beste, baserria, paisaia, gizakia, Aralar, antropologia, mitologia, artzantza, erakuntza artistikoak... aipa daitezke gai bezala.

Lanak aurkezteko epea 2.000.eko abenduaren 15an bukatuko da. Hiru saridun izango dira. 60.000 pezeta eramango ditu lehenengoak, 25.000 pezeta izango dira bigarrenarenentzat eta 15.000 hirugarrenarenentzat. Lehen hiru argazki sarituekin eta hautatutako beste zenbaitekin postaleak egingo dira. Parte hartzaile bakoitzak gutxienez 3 argazki aurkeztu beharko ditu. Gehienez berriz, 9 argazki aurkeztu daitezke.

Karlosek ia hilabete gose greban

Zenbaki hau kaleratzen den egunean 26. eguna beteko du gose greban Karlos Ioldik. Euskal presoek eta, bereziki ataundarrak, aurrera daramaten protesta honekin bat egin nahian zenbait ekintza burutu dira herrian azken asteotan. Horien artean joan den igandean El Duesora (Santoña) eginiko martxa aipatu behar da. Autobusa bete jende joan zen gartzelaraino Karlosi beraien elkartasuna adieraztera. Sendiak bisita egiten zion bitartean trikitilarien doinuek alaitu zuten giroa. Hala ere, momenturik hunkigarriena, Karlosi patiora herritarrek agurtzera irten zenekoa izan bide zen. Lerro hauetatik animoak eman baino ez zaigu geratzen. Animo, bada, Karlos!



Koloretan zein txuri beltzean atera daitezkeen argazkietan, derrigorrez nabarmendu behar da Ataunen ateratakoak direla. Argazki paperearen neurria: 18x24 zentimetrokoa izango da. Epaimahaiaren erabakia abenduaren 15a baino lehen ezaugaraziko da. Epaimahaia Kultur batzordeko arduradunak, alderdietako ordezkariak eta argazkigintzako zenbait adituk osatuko dute.

Kasu honetan ere Udaletxean jaso beharko dituzue beharrezko kartazal eta fitxak. Gainera, xehetasun guztien berri dagoeneko etxetik banatu diren orrietan aurkitu ahal izango duzue. Edota bestela, Ataungo Udalera zuzen zaitezke.

Agurtzane Bikuña

2000.eko jokuetako irabazleak

Atsedentoki jubilatuen elkarteak antolaturiko jokuen berri ematen genizuen aurreko zenbakian. Oraingoan aldiz, orainarte jokatu direnetan irabazle suertatu direnen berri ematen txanda heldu da. Hona hemen, jokuz-joku, garaile geratu direnak: **Botean:** Antonio Goikoetxea; **Zapoa** Julian Imaz; **Tokan** Joakin Aldabe; **4 erregetara musean** Jazinto Begiristain eta Joakin Aizpurua bikotea; **Seiko urrean** Teodora Urbiztondo eta Pilar Larreak osatutako bikotea eta azkenik, **Tutean** Blasa Aierdi eta Inazio Etxeberriak osatutakoa. Zorionak guztioi!

Partaidetzari dagokionean esan, kanpoko jokoetan gizonetako bakarrik hartu dutela aurtengoan ere parte, 25-26k aldiko. Kartetan ere gizonetako izan dira gehiengoak: Musean 33 gizonetako eta 7 emakumek hartu dute parte; Tutean 16 gizonetako eta 4 emakumetako. Seiko Urrean aldiz, 25 izan dira emakumeak eta 23 parte hartu duten gizonak.

Udal zerbitzuak

Joan den asteko plenoan hala erabakirik, lehiaketara ateratako Udal Zerbitzuen ardura honakoon eskuetan gelditu da datozen bi urtetarako. Esan, epe hau lau urtetararte luzagarria dela. Atsedentoki Pili eta Maite Goikoetxearen ardurapean; Auzoeta Udal kiroldegia Pako Urrestarazuren esku; eta azkenik etxetako laguntza zerbitzuen kudeaketa Lendin enpresaren esku.

Udalerrian gasifikazioaren lehen fasea

Lehengo astelehenean, martxoak 20, herriko gas-naturalaren gasifikazioaren lehen faseari ekin zitzaion. Gasifikazioaren fase honetan kontsumorako sarearen zati bat burutuko da, orain artekoan gas-naturala industria sarera sartua aurkitzen baita.

Beasaina doan adarraren barnean, gasa Zumarraldetik Zumalakarregi kalera bideratuko da eta ondoren beste norabidean Gabirialde kalera irango eramango da. Gas bideraketaren lehen fase honetako lanak sei hilabeteko epe inguruan amaituak izatea dago aurrikusita.

Gasifikazio lanak Natur-Gas enpresak eramango ditu aurrera. Beraiek gasa etxeetako tometaraino ekarriko dute, ondoren Natur-Gas etxe bakoitzeko jabeekin

harremanetan jarriko da, jabeek hala erabakiz gero gasa etxe barrura sartu ahal izateko. Aurrez gasa duten etxeek baina gas naturalera aldatzea erabakitzen dutenek, ez dute inolako arazorik izango kaldera eta instalazioak egoera berrira egokituko baitituzte.

Gas naturala sartzeak depositu beharrik eza suposatzen du. Hain zuzen gasa lur azpitik bideratzen da, presio neurketak estazio berezi batzuetatik egiten dituztelarik. Beraz gas naturalak etxe bakoitzeko deposituen mantenu gastuak, neurketa eta berak eskatzen dituen harreta bereziak aurrezteak suposatzen du.

Aipaturiko eran gas naturala Zumarraldetik Zumalakarregi etorbidera eta Gabirialde kalera bideratuko dute.



Gainerako herriko kaleetara gas bideraketak datozen urteetan Natur-Gasen esleipenen arabera egiten joango dira.

Gas-naturalaren bideraketa lanek herritarrengan sor-

ditzaketen eragozpenen aurrean, udalak lerro hauen birtartez herriko guztiei barkamen eskaria luzatzen dizue.

Aitziber Murua

Odol-emaileen eskertza

Martxoaren lehen egunean herriko odol-emaile elkarteak antolatuta egin zen odol ateraketan, 4 analitika eta 58 odol ateraketa egin ziren. Elkartekideek biziki eskertu nahi dute oraingoan ere jaso izan duten laguntza. Euskadiko Kutxa, Murua harategia, Deba harategia, Iñaki autozerbitzua, Ellosegi ardotea, mediku kontsultategia eta lagundu zien gainerako guztiei lerro hauetatik biziki eskertzen die elkartearikiko izan duten eskuzabaltasuna. Aldi berean, eskerrik beroena bidaltzen die herriko udalkideei ere udaletik odol-emaileen elkartera bideratu izan duten dirulaguntzagatik ere.



**SUKALDEKO
ALTZARIAK
ELEKTRAGAILUAK**

ERAKUSKETA:

☎ 943 88 23 00
Kale Nagusia, 10
ORDIZIA

Suquia



MUJKA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA

Odol ematea martxoaren 31n

Odol-emaile elkarteak antolatuta odol ateraldia egingo da martxoaren 31n, arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara, Eskoletan. Odol-emaile elkarteek jendea parte hartzera animatu nahi du, eta bereziki, jende gaztea.

Hitzaldiak parrokian

Santa Fe parroki elkarteak zenbait hitzaldi antolatu ditu aste honetarako. Gaur ostirala arratsaldeko 6,30etan izango da azken solasaldia parrokian bertan. Bittor Gorria Beasaingo erretorea da hizlari eta batik bat lau gai prestatu ditu: Jaungoikoarekin hobetoago, Jainkoagan sinistea gaur egun, Jesusen espiritua elizan eta kristau familiaren eta gizartearen zerbitzura.

Hitzaldiok, Parroki elkarrearen esanetan, Kristautasuna landu nahi duten guztiei zuzenduta daude, batez ere seme-alaben heziketaz arduratu eta katekesira edo sen-

dotzara joateko animatzen dituzten guraso guztientzat.

Hauteskundeetako emaitzak

Martxoaren 12ko Hauteskunde Orokorrek honako emaitzak izan zituzten Zaldibian.

Errola/Zentsoa: .1274
Boto-emaleak:278
EAJ:82
EA:68
PSE:50
PP:41
EB:19
Baliogabeak:8
Txuriak:9
Abstentzioa:%78

Ezagutu ditzagun herriko mugak

Goierritarren azken alean kaleratutako informazioaren haritik gogoratu nahi dizuegu etzi, igandea, Zaldibiako herri mugak ikusiz ibilaldira bat egiteko aukera paregabea dugula. Gailurrerantz



Mari Fe Nogalesen kontzertua

Gaur ostirala, gaueko 10,15etan Mari Fe Nogales Perez abeslari andoaindarraren emanaldia izango da herriko antzokian. Mari Fe ETBko Izar bila saioan garaile ateraz eta egun, Xabier Euzkitzek gidatzen duen Sorginen Laratza saioan abesten du.



K.E.-ko mendi sailak asteburu bete-betea dakarkigu oraingoan. Igandean goizeko 8,30etan plazatik atera, herria mugaz muga pasatu eta ondoren Zubi-Buru elkartearen bazkaltzeko parada ezin hobea antolatu digute. Horrez

gain, larunbatean orain arte egindako irteeratako argazkiak eta diapositibak egongo dira ikusgai kultur etxean arratsaldeko 4,30etatik aurrera.

*Saroi Jauregi
Inaki Gurrutxaga*

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B. KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83

LAZKAO

Auto EASO

Ibabe industrialdea, 13
LAZKAO

☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955

aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea

☎ 943 80 60 66 LEGORRETA

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

☎ 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



ALTZAGA

Aurreku eta Doinu Zaharren dantza lehiaketa asteburuan

Asteburu honetan, martxoaren 25an eta 26an, Aurreku eta Doinu Zaharren dantza lehiaketa ospatuko da Usurbe Antzokian. Aurtzaka dantza taldeak antolatzen du Udalarren laguntzarekin. Aurtengoa 9. edizioa izango da.

Biharko saioa arratsaldeko 4etan hasiko da eta infantil mailako bi txapelketa burutuko dira. Igandekoa berriz, goizez jokatu da eta 11etan emango diote hasiera. Gazte mailakoek hartuko dute parte eta bi txapelketa burutuko dira.

Parte hartzen duten neskek, Doinu Zaharren lehiaketa osatzen duten hiru dantza eskaini beharko dituzte. Mutilek Aurreku lehiaketan arituko dira. Gaztetxoek, Agurra eta Alpargatarena dantzatzeko gain, Desafioa ere dantzatu beharko dute. Haurren mailan ordea, ez da Desafioa dantzatu beharrik izango. Euskal herriko txapelketaren barruko ligaxkaren barruan kokatzen dira Beasaingo bi txapelketa hauek.

Nekane Altuna

Jaietako Egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa

Beasaingo Udaleko Kultur Batzordeak lehiaketa antolatu du 2000ko Loinatz-Jaietarako egitarauaren azala aukeratzeko. Oinarriak dioenez, edozeinek har dezake parte lehiaketa honetan eta edozein kolore edo eratako lanak onartuko dira. Lanen neurriak berriz, 45 X 65 zm. edo tamaina proportzionalekoa izango da. Hori bai, lehiaketako gaia, Beasaingo Loinatz-Jaiak izango da eta lanetan, 'Beasain, 2000ko Loinatz Jaiak: Ekainaren 2tik 11ra' testua idatzirik agertu beharko da. Lanak apirilaren 10a baino lehen aurkeztu beharko dira Udaletxeko Hiritarren Harre-ra Bulegoan. Epaimahaiak, apirilaren 19a baino lehen emango du bere erabakia. Saria, 51.000 pezetakoa izango da.

Latinamerikar eta afrikar artisautza ikusgai

Hegoamerikako eta Afrikako artisautza ikusteko aukera izango da Martxoaren 31tik apirilaren 9a arte Usurbe Antzokian. 'Organización de Cooperación y Solidaridad Internacional' Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatu du.

Erakusketa honen bidez, bi kontinente hauen kulturatik sortzen den artea ezagutzeko aukera izango dugu. Guatemalako ehunak ikusteko aukera izango da alde batetik. Otarrekin ere izango dute beren tarte. Chocolatilloz eta lasto-tokilaz egiten diren otarren erabilera azalduko dute. Bestetik Olinalako lakatuak nola egiten diren ikastea ere egongo da. Zeramikari dagokionez, Quiborreko zeramikak eta Kolonaurreko aurkikuntzek duten zerikusia azalduko zaigu. Afrikako artean berriz, zura eta marfila lantzen eta margoetan oinarritzen dela erakutsiko zaigu.



Hiru herritar gose greba mugagabea

Mikel Azurmendi martxoaren 6tik eta Jabi Irastorza eta Juan Mari Intxausti martxoaren 10etik, gose greba mugagabea daude. Elkartasuna adierazi eta beasaindarrei egoera horren berri emateko asmotan, joan zen asteburuan akanpada egin zen Zubimuzu plazan. Egun hauetarako ere antolatu ditu hainbat ekitaldi Amnistiaren Aldeko Batzordeak. Gaur, martxoak 24, enkartelada izango da Zubimuzu plazan, 20:00etan. Bihar, larunbata, bizikleta martxa abiatuko da goizeko 10,30etan Zubimuzutik. Asteartean, 28an, azkenik, hitzaldia izango da Udaletxeko batzar aretoan, iluntzeko 7,30etan, Joxe Miel Azurmendi eta Jokin Aldanondo preso ohiekin eta Senideak elkartearen kideekin. Era berean, martxoaren 25ean Baionan presoen eskubideen alde izango den manifestaziora joateko autobusa antolatu da. 15:00etan aterako da, Pergoletatik. Tikeak Arranon salgai.

Beasaingo Udalak, bere aldetik, gose greban dauden herriko presoen egoeraren jarraipena egitea onartu zuen martxoaren 2an, Txemi Arteaga herritarra gose greban zegoela eta. Arteagak 34 egun egin zituen gose greban.

LABURREAN

Ezindu fisikoentzat bekak

Eguneroko beharretan besteen beharrik ez duten, 17-40 urte bitarteko ezindu fisikoek, formakuntza profesionaleko zenbait kurtso egiteko aukera izango dute. Automozioa, audizioa, kontabilitatea, industriako kalitate eta elektrizitatea, elektronika, oinarriko informatika, zurgindegia eta zapata-gintza izango dira kurtso hauetan ikasi ahal izango dutena. Kurtso hauek Madrilan emango dira, baina bekak, gastu guztiak ordainduko ditu. Interesatuta daudenak, apirilaren 7a baino lehen aurkeztu beharko dute eskaera Udaletxeko Ongizale Sailan. Informazio gehiago nahi izanezkerok berriz, 943-028075 telefono zenbakira dei dezakezue.

Musika Eskolan Matrikulaketa

1996 Plangintzako Maila Ertaineko ikasle libreentzako matrikulazio epea zabalik dago martxoaren 31a bitarte. Bulego-ko ordutegia honakoa da: astelehena, asteazkena eta ostegunetan, arratsaldeko 3etatik 7etara eta astearte eta ostiraletan berriz, goizeko 9etatik 1etara.

Txoznetako batzordearen bilera

Beasaingo jaietako Txoznetako batzordeak bilerak hasi ditu dagoeneko. Hamabostean behin egingo dituzte. Hurrengo bilera, martxoaren 27an, iluntzeko 8etan, Kimuak-en.



Adinekoentzako oporraldi programa

Udaletxeko Gizarte Zerbitzu departamenduak jakinarazi digunez, ireki da adinekoentzako oporraldi programa. 2000-2001 kanpainan parte hartu nahi izanez gero eskararak egiteko udaletxeko Gizarte Zerbitzutik pasa zaitzekete, ostegunetan 12:30-etatik 14:00etara bitartean. Izena emateko epea berri, datorren apirilaren 15ean bukatuko da.

Mus txapelketa Ostaturun

Martxoaren 18an jokatu zen. 17 bikotek eman zuten izena eta irabazle Milagros Aranburu eta Pedro Agirre izan ziren. Bigarren berriz, Jose Alustiza eta Antonio Aranburu geratu ziren.

Aitz-Buru elkartetik Errioxa aldera

Egun bete-betea izango da martxoaren 25a Aitz-buru elkartetik bazkideentzat. Azken urteotako bidaia dagoeneko ohitura bihurtu da eta

egun pasa paregabea pasatzeko aukera ederra izango dute Errioxa aldean. Goizeko zortzi eta erdietan abiatuta arabar errioxako inguruetara gerturatuko dira egun osoa hantxe igarotzeko.



Bola jokoa

Hau ere martxoaren 18an jokatu zen Mutiloko Bolatokian Goierriko Bola txapelketako saioetako bat. Goierriko bolatoki desberdinetan jokatzen da txapelketa eta egun horretan gure herrian. Goizean eta arratsaldean burutu zen txapelketa eta Mutiloan Aritz Iparragirre idiazabalarrak bota zituen birla gehien.



Lierni Garakoako arbi buruak

Argazkian ageri den Patxi Mujikaren sailetan sekulako arbi buruak ari dira jasotzen. Lierni Garakoako nagusia bere 91 urterekin arbiak jorratzen aritu omen da, oraindik ere bixkor baitabil. 90 zmko gerri buelta dutenak dira handienak baina denak ere bikainak atera dira. Soroko lanik handiena Dotorotegiko Felix, Jabier eta Joanito Oiarbide anaiek egin dute. Hauek azken aldiko lehortea dela eta kexu ziren, "euria egin izan bazuen oraindik ere handiagoak aterako ziren. Hemen 1,20 metrokoak ere bilduta gaude", diote.

Terreno onak dira Lierniko hauek, sagarrak ere ederrak hazten baitira bertan. Oiarbidetarrek diotenez, Andra Mari eta San Bartolome bitartean erein behar da arbia, ximaur ona bota behar zaio eta behar bezala bakandu behar da. Lierniko Ama Birjinaren laguntza ere izango dutela diote.

Gaur egun arbi gutxi ereiten bada ere, garai batean asko izaten zen. Lehen garaia bildu ondoren ereiten zuten arbia. Eta neguak gogorrakoak ziren garaietan, eskuarekin elurra kendu eta eskuak suminduta aritzen ziren arbia biltzen.

Festetako bilera

San Pedro jaien antolakuntza lanak aurrera doaz dagoeneko baina oraindik norbaitek bere aportazioa egin nahi

baldin badu garaian dago. Hurrengo bilera apirilaren 14an izango da gaueko 10etan.

Iñaki Ugalde



ARANDIA
Garaiea

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g

Iurre Auzoa

☎ 943 88 09 47

OLABERRIA

GARMENDIA
Tejas y cubiertas S.L.

Egurrezko egitura tratatuak

Tel-Faxa: 943 16 10 32

Maiuz Industrialdea, 26. pab.

ORDIZIA

Edozein
motatako
teilatutako
egiteko
prestatuak:
komunitateak, baserriak,
txaletak eta abar



Alpe

MASTER

Elektragaiak
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4

☎ 88 86 84

BEASAIN



Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
802 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

Merkatariek ere badakite euskaraz

Honakoa hau ondoriozta daiteke Udalak aurrera eraman-dako 'Euskara Merkatal Mundura' kanpainaren amaieran. Izan ere, Ordizia-ko merkataritza arloan euskararen erabilera indartu, euskararen normalizazio prozesuan konprometitutako merkatarien sarea osatu eta establezimenduek ematen duten zerbitzuaren kalitatea hobetu euskararen erabilera kontutan hartuta helburu bezala ipinita hasiera eman zitzaion iazko uda aurretik. Ordutik hainbat datu bilketa egin dira eta zera ondorioztatu: establezimenduen %82an badagoela harremanak euskaraz izateko aukerarik. Ostalaritza sektorean portzentia hau areagotu egiten da gainera, %88ra iritsi arte.

Egoera horrelakoa dela ikusita Udaleko Euskara Zerbitzuak hitzarmenak sinatzea proposatu die herriko merkatariei: itzulpenak jendaurrean jartzeko konpromezua, ikastaroetara joateko asmoa, ageriko idazkietan euskararen presentzia bermatzeko konpromezua eta erakundee-kiko harremanak euskaraz egiteko asmoa, guzti horiek islatzen ditu hitzarmenak. Esan herrian 225 establezimendu ditugula eta hauetatik hiru laurden batek sinatu duela aipatu hitzarmena.

Datuak datu, merkataritza talde bat ere hor hasi da euskara maila hobetu nahian AEK-k emandako ikastaro batean. Klaseak eguerdietan ematen dira, merkatariei hobe-kien datorkien ordutegian



hain zuzen. Honez gain, errotuluak euskaraz, "merke-aldia" txartela... ere ikus daitezke nonahi.

Garbiñe Mendizabal euskara teknikaria ere baikor agertu zaigu. "Hitzarmena sinatu duten establezimendu kopuru handia kontutan hartuta balorazio positiboa egin

diogu kanpainari. Dena den, ezin gara honekin konformatu eta aurrera begirako diseinua egitekotan gara, jarraipen puntualagoak eginaz eta erabileran gehixeago zentratuaz", berak azaldu zigu moduan.

Aitor Calvillo

LABURREAN

Giro polita Argi Berrin

Gabiriko Osinalde Bertso Sarirako baliagarria zen kanporaketa jokatu zen aurreko larunbatean Bustuntza Auzoko Argi Berrin Elkartearen. Bertan bertsozale ugari bildu ziren, aurrena afa-ri goxo batez gozatzeko eta ondoren bertso saioa entzuteko. Gustora atera ziren denak ere bertsolari gazteak ondo portatu baitziren. 6 bertsolari aritu ziren: Nerea Elustondo, Estitxu Eizagirre, Joseba Gojenola, Anertz Muniategi, Iker Osa eta Ainhoa Agirreazaldegi. Saioa paretsu joan bazen ere finalerako txartela lortu zutenak Hernaniko Estitxu Eizagirre eta Legazpiko Nerea Elustondo izan ziren. Afalkideek, aldiz, III. Argi Berrin Sarirako euren botua eman zioten beraientzat bertsolari onena izan zenari. Hauek epaileei kontra eginez beste bertsolari batentzat izan ziren, Hernaniko Iker Osarentzat hain zu-zen.

'Ozeanoko pianojolea'

Antzerki garaiaren barruan Tanttaka antzerki taldeak 'Ozeanoko pianojolea' lana antzestuko du datorren martxoaren 31n Herri Antzokian eta euskaraz. Iñaki Salvador eta Jose Ramon Soroiz izango dira antzesle nagusiak eta deserriatuen historia da obra hau, inmigrazioarena, adiskidetasunarena. Baina guz-

tiaren gainetik musikaren gaineko historia da, musikaren esanahiarena, jotzen duenari gertatzen zaionaz eta entzuten duenaren sorrarazten duenaz. Azken batean pianojole baten historia da, talentu handirik gabeko tronpetajole batek kontatzen duena, bien ala biek itsasoaren musikan galduta. Antzerkia, musika eta historia onak maite dituen ikuslearentzat kalitatezko ikuskizuna aurkeztzen du, beraz, Tanttaka taldeak.

Rugby taldekoak eskoziara

Aurreko ale batean adierazi genizuen bezala, rugby taldeko jokalarik eta ingurukoak Eskoziara joango dira apirileko lehen asteburuan. Bertan neurketa pare bat jokatzear gain sei nazio-etako txapelketaren barruan Eskozi-Ingalaterra norgehiagoka ikusiko dute zuzenean. Ez zaie batere gaizki etorriko eskoziar lurraldetan jokatu dituzten partidak, izan ere, itzultzean igotera fasea jokatu beharko dute, ligan lan bikaina burutu eta gero.

Extremadurako eguna

'La Jara' Extremadurako Kultur Zentroak antolatuta 'Extremadurako eguna' ospatuko du datorren apirilaren 2an Enparantza Nagusian.

Elorri Kultur Elkarteak antolatua Iparraldeko zenbait kiderekin batera

Iparr-Hegoa Seguran

Elkar ezagutzeko, ulertzeko, osatzeko eta azken batean batzeko asmoarekin sortutako Iparr-Hegoa ekimena sendotuz doa urtetik urtera. 5. ediziora iritsi da aurtengoarekin. Herri berekoak izan eta hain gutxi ezagutzen dugun Zuberoa hartu dute gaitzat aurtien Elorri elkarteak eta astean zehar Zuberoari buruzko hainbat hitzaldi izan da. Astebururako, aurtien Plazan karpa handi bat jarriko dute, eguraldiaren konfidantzarik ezean.

Zuberoari eskainitako Iparr-Hegoa astea hitzaldiz eta irratsaioz osatua egon bada ere, asteburu honetan burutuko dira ekitaldi gehienak.

Martxoak 24, ostirala:

● Nafarroa Behereko eta Zuberoako mugan dagoen Donaixti ikastolako neska-mutikoen bixita izango dugu. Bi herrialdeetako haurrak egunpasa, goizez Segura ezagutu eta Zerain bixitatuko dute. Ondoren bazkaria izango dute. Arratsaldean, Herri



Iparr-Hegoaren arteko harremanaren lekuko den gerizondoa. Igandeko 13:00etan izango da honen inguruko ekitaldia.

Eskolako haurrekin batera, arratsaldeko 4etan Pirritx eta Porrotxekin jolasak plazan. Jarraian buruhandi eta erraldoiekin jolasteko aukera eta txokolate jana.

● 19:30ean, hitzaldia izango da kultur etxean. Gaia: Udalbitza. Partaideak: Jon Jauregi (EAJ), Xabier Alegria (EH) eta Pello Gonzalez (EA).

● 23:00etan kontzertua izango da plazako karpan. Niko Etxart eta bere aitak kitarrajole baten laguntzaz Zuberoako kantu herrikoiek abestuko dituzte. Sarrera doan.

● Ondoren, Iparraldeko Kuxuxtu txaranga herriko kale eta tabernetan.

Martxoak 25, larunbata:

● II. Margo txapelketa nobelentzat. Goizeko 10etarako herriko plazara azaldu behar dute. Gaia: Segura edo bertako edozein txoko. Epaimahaia Joxemari Telleriak eta Jesus Jauregik osatuko dute. Sariak: 1goari 50.000 pezeta, 2.ari 35.000 eta 3.ari 20.000 eta aipamen bereziari 10.000. Partehartzaile guztiek bazkaria doan izango dute. Sari banaketa arratsaldean egingo da. Lan guztiak kultur etxean jarriko dira ikusgai eta salgai eta ondoren herriko tabernetan. Iazko edizioan 25 margolarik parte hartu zuten.

● Goizeko 10,30etatik hasita, hegoaldeko (Segura eta

Goierri batez ere) eta iparraldeko produktu eta artisauen azoka plazan.

● Arratsaldeko 3,30etan futbola Alustiza futbol zelaietan. Segurako afizionatu taldea Iparraldekoen aurka. Iparraldeko taldeak faltako diren 3 jokalariren oroimenez ekitalditxo bat burutuko da.

● Arratsaldeko 6etan pelota partidua afizionatuen artean. Iparraldekoak Hegoaldekoen kontra, 'Beti alai aste ta jai' frontoian.

● 18:30ean margo txapelketako sari banaketa plazako karpan.

● Jarraian Segurako taloak eta Irulegiko ardoa probatzeko aukera izango da. Iparraldeko Kuxuxtu txaranga bertan izango da.

● 23:00etan hasita, Naftena herriko taldearen kontzertua plazan. Ondoren Elorrioko Ene Bada taldearen musika emanaldia goizalderarte.

Martxoak 26, igandea:

● Goizeko 10,30etan, Kri-seilu txistulari taldearen kalejira.

● Ondoren, goizean zehar, Iturengo joaldunak herriko kaleetan.

● 11:00etan hasita, sagardo dastaketa plazako karpan. 12 sagardotegitako, gehienak

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:
☎ 943 88 03 15



Aurtengo herri bazkaria plazako karpan izango da.

Goierrikoak, sagardoak probatzeko aukera izango da. Pintxoak ere izango dira.

● **12:00etan**, meza nagusian eta ondoren plazako karpan, Hendaiako Entzun abesbatz mistoaren emanaldia izango da.

● **Jarraian**, Zuberoako Bar-koxeko Muskildi dantza taldearen emanaldia plazako karpan.

● **13:00etan**, gerizondoaren inguruko ekitaldia burutuko da. Entzun abesbatza eta Muskildi dantza taldea bertan izango dira.

● **14:30ean**, bazkari herri-koia plazako karpan. Aurretik egindako lehiaketan prestatutako arkume paella izango da menua. Herriko nahiz Iparraldeko 15en bat taldek hartuko dute parte lehiaketan. 200en bat lagunentzat daude tikeak salgai Elorripe tabernan. Lehiaketako sariak bazkal ondoren banatuko dira.

● **Arratsaldeaz eta asteari amaiera emateko**, Iparralde eta Hegoaldekoen arteko soka tira saioa izango da. Ondoren Mutxikoak dantzatuko da plazan.

Joseba Telleria

Erakusketak

Kultur Etxean 'Agotak' Zuberoako pastoraleko 12 jantzi ikusgai izango dira igandera bitartean.

Iazko ediziorako prestatuko Zuhaitz eta zuhaixken erakusketa ere ikusgai izango da, Kaxinto Antxermonean.

Karpa

Eguraldiarekin konfidantzarik ez dagoenez, karpa handi bat jarriko plazan astebururako. Bertan izango dira ekitaldi nagusiak eta txozna bat ere jarriko da.

Laguntzaileak

Herriko tabernariak, Segura, Mutiloa eta Zeraingo udalak, Goierriko sagardotegiak, Zeraín eta Mutiloako ostatuak, Mujika jatetxea, Gipuzkoa Kutxa, Euskadiko Kutxa, Xüberoako Botza eta Segura Irratia.



Iturengo joaldunek igande goizez animatuko dute herria.

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

URBITARTE
sagardotegia



- Txotxetik irekita
- Eguerdi eta gauetan irekita
- Eguerdietan hobe aurrez deitzea

Erreserba telefonoa:
943 18 01 19

Ergoiena Auzoa **ATAUN**

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

Helena Tabernaren 'Yoyes' filma apirilaren 1ean Ordizian aurkeztuko da

Helena Taberna altsasuarrek egindako 'Yoyes' filma martxoaren 29an estreinatuko da Bilbon. Ordizian, apirilaren 1ean. Dolores Gonzalez Katarain 'Yoyes' ETako kide ordiziarraren bizitza kontatzen da bertan.

ETako buruzagitza iritsi zen lehen emakumea izan zen 'Yoyes'. Mexikon errefuxiatuta hainbat urte egon ondoren, ETA utzi eta Ordiziara itzuli zen. 1986an ETAk hil zuen.

Tabernaren esanetan, Yoyesen bizitza erabat zinematografikoa da. "Beste herrialderen batean horrelako istorio bat izan balute, aspaldi zuten zinemara eramana. Gure herriaren historia mingarri bat da oso. Yoyesena historia unibertsal bat da, bestalde, tragedia greziar bat, gure garaian eta inguruan kokatua", esan izan du nafarrak.

Polemikatik alde

Polemikatik alde egin nahi izan du zine zuzendariak, eta 'Yoyes' en bilakaera eta alde emozionala jorratu nahi izan ditu. "Jakina, pertsonaia behar bezala ezagutu ahal izateko bere ingurumena azaldu behar da. Gauzak horrela Yoyesen garaiari dagozkion giro eta arazoak islatu ditugu: 70. eta 80. hamarkadetakozarata politikoa, ETaren jarduerak, GALen agerpena, Espainiako Barne Ministerioaren bergizarteratze politika... Hau guztia azaltzen da



filman. Funtsean, ordea, ez da hori, Yoyesen eboluzioa bai zik eta emakume gisa bizi izan zuen esperientzia", dio Tabernak.

Gertu-gertuko informazioa

Garai hartako prentsa agiriak, Yoyes ezagutu zutenak eta bere familiakoak, Yoyesen egunkaria... izan ditu ardatz zine zuzendariak. "Yo-

yes egiazko gertakarietan dago oinarriturik, baina ez da dokumentala. Fikziozko filme bat da: Yoyesen bizitzaren birsorpena, egungo eta betiko tragedia eran eginik. Jose Angel Valente poetaren arabera, eta nik ere hala diot, biografia oro asmaketa da, baina, neure lan hone-tan, izugarrizko ahalegina egin dut egia kontatzeko. Nire iritziz, biografia bati eki-

tean, funtsezkoa da laneko gaiak egiazkoak izatea. Harria egiazkoa bada, geure gustura lan dezakegu hura, oso gogorra bada ere. Nik, behintzat, ardura handi-handia izan dut, nire filmari eutsiko dion harria egiazkoa izan dadin". Bikotearen eguneroko bizitzari dagozkion kontuak asmatuak izan dira.

Aldatzeko eskubidea

Tabernak Yoyes ezagutu ez bazuen ere, belaunaldi berekoa izanik, oso gertukoa sentitzen du. "Patua bere iraganaren aurrean nola oldartu eta gailendu zitzaion interesatu zait. Bere garaiari aurre hartu zion emakumea zen Yoyes, ETaren barruan agintaritzara iritsi zen lehenengotako bat". Pertsona orok aldatzeko duen eskubidea azpimarratu nahi izan du; bizitza mugiezina ez delako, prozesu bat baizik.

Ana Torrent Yoyesen paperean

Filmako protagonista nagusiaren papera, Yoyes, Ana Torrent madrildarrak betetzen du. Bere senarra, Joxean, Hernesto Alterio argentinarra da. Bien alaba, Zuriñe, Laura Ballesta.

Pelikulan zehar hainbat aktore ezagun azaltzen da: Aitzpea Goenaga, Anartz Zuazua, Ramon Langa, Asier Hernandez, Martxelo Rubio, Mikel Albisu, Kike Diaz de Rada, Kandido Urango, Pilar Rodriguez, Paul Zubillaga, Irune Manzano...

Koprodukzio frantziar-espainiar-italiarra izan da. Gidoia Andres Martorel eta Helena Tabernak egin dute.

Musika Angel Illarremendi zarauztarrarena da. Pragako Orkestra Sinfonikoak atal instrumentala interpretatu du eta Amaia Zubiriak gai nagusia abestu du.

Zortzi astetan zehar errodatu zen filma. Andoainen, Donostian, Donibane Lohizunen, Baionan, Getarian, Miarritzen, Madrilen eta Parisen grabatua izan da. Ordiziako pasarteak Andoainen grabatu zituzten.

Iragana eta oraina

1973an hasten da filma. ETAn nola sartu eta nola ateratu zen, Pariseko egonaldia, bere heriotza Ordizian, GALen atentatuak, prentsaren jazarpena... azaltzen dira. Istoria flashback moduan dago kontatua, iragana eta oraina tartekatuz. 104 minutuko iraupena du.

Euskarazko bertsioa

Euskarazko bertsioa izango du pelikulak, Txemi Arratibel ataurdarra ari da lan horretan.

Etxebizitzak

salgai

➡ Etxebizitza salgai Zegaman, baratza eta txabolarekin. 943886834.

➡ Pisua salgai Beasainen. Erdi moblezta-tua. Egoera onean eta prezio interesgarria. Garajea aukeran. 943888318.

erosi

➡ Etxebizitza erosi-ko nuke Beasainen, erdigunean. Igogailuarekin edota igogailurik ezean, beheko pisu bat. 943 880620.

Tabernak

errentan

➡ Jatetxe-taberna alokatzen da Ikazte-gietan. 943651072. Luis.

Animaliak

salgai

➡ Boxer arrazako txakurkumeak salgai, pedegreearekin. 696057346.

➡ Euskal ponnyak salgai. 943160919.

Ibilgailuak

salgai

➡ Citroen Jumper furgoneta salgai. SS-AT. 85.000 kilometro. 943 885210. Juan Karlos.

➡ Trialeko monty txirrindua salgai. 221 klasea. 943800454.

➡ Opel Kadett GT gorria salgai. Extrekin. SS-AF. Gauez deitu, 943-161941. Joseba.

➡ Zeus markako mountain bike salgai. Urdin metalizatua eta moratua. 10.000 pezetan. 667239378.

➡ Suzuki RMX motorra salgai. Morea, txuria eta horia. Extreki eta ongi zaindua. Matrikulatua. 215.000 pezetan. 617981810.

➡ Renault 21 autoa salgai, SS-AN. 943 653786.

➡ Enduro-ko Kawasaki KDX 125 cc. motorra salgai. SS-AN. 92. urtekoa. Egoera oso onean. 656 727300 - 943882907. Ibon

erosi

➡ Motorra erosiko nuke. Ondo zaindua eta merkea. 667239378. 3etatik aurrera deitu.

Bestelakoak

salgai

➡ Bixkientzako kotte kapota oparitzen dut. Luzea eta bata bestearen parekoa. Euritarako osagarriak 10.000 pezetan salgai. Deitu eta ikusi inongo konpromezurik gabe. 943161631.

➡ Komuneko armai-rua, ispilurekin, argia eta entzimeraduna, txuria, salgai. Berriberria. 943 888844. 7etatik aurrera deitu.

➡ Sarrerako altzaria salgai, ispilu bisilatua-ekin eta takiloi batekin. Zurezkoa. Berriberria. 943 888844. 7etatik aurrera deitu.

➡ Comby markako frigorifikoa salgai. Urtebetekoa. 943 888844. 7etatik aurrera deitu.

➡ Philips solariuma (8 lanpara) salgai. Tenporizadorea eta bentiladorearekin. Egoera onean eta ia erabiligabea. 617520981.

➡ Telebista berri samarra salduko nuke, erdi prezioan. 943161835.

➡ Borsini markako akordeoia salgai. Ia berria. 943801433.

➡ Berogailuaren akumuladorea salgai. Berria. Egoera onean. 943887146.

➡ 'Speed line' markako llantak salgai. 16 pulgadakoak. Separadore eta esparragoak ere bai. Prezio interesgarria. 943800384 (gauez), 629336182 (Beñat).

Lana

➡ Idiazabalgo pilotalkuko mantenimendurako eta bertako tabernarako arduraduna behar du Idiazabalgo Udalak. Baldintzak 14. orrian. 943 187100

➡ Neska bat eskaintzen da adineko jendea edota umeak zaintzeko. Interesatuok deitu 943885783 telefonora.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

2 KOMERTZIAL JUNIOR

Donostian. Erref.: 29775/2

MATERIALE ELEKTRIKO KOMERTZIALA

Donostian. Erref.: 29021/2

ERAIKUNTZA DELINEATZAILEA

ETT bidez Lasarten. Erref.: 30046/4

TORNEROA / FRESATZAILEA

Donostian. Erref.: 29944/8

WEB ORRIEN DISENATZAILEA

Donostian. Erref.: 29985/4

C.N.C. TORNEROA

Tolosaldean. Erref.: 29691/2

MANTENIMENDU TEKNIKARIA

Goierri. Erref.: 30028/2

KOMERTZIALA

Donostian. Erref.: 29163/9

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza

943 884 401

ZINEA

GOIENIZ:

Martxoak 30, 'Sonatine', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

LEGORRETA:

Martxoak 26, 'De vuelta a casa 2', 17:00etan, Herri Zinema.

Martxoak 30, 'American history X', 20:30ean, Herri Zinema.

BEASAIN:

'El sexto sentido'.

Ostirala 24: 22:15

Larunbata 25: 19:30 - 22:15

Igandea 26: 17:00 - 19:30 - 22:15

Astelehena 27: 19:30 - 22:15

ORDIZIA:

'La milla verde'.

Ostirala 24: 22:15

Larunbata 25: 22:15

Igandea 26: 19:30 - 22:15

Astelehena 27: 19:30

'EDTV estan en directo'.

Larunbata 25: 19:30

Igandea 26: 16:45

'Yoyes'.

Larunbata 1: 19:30 - 22:15

Igandea 2: 19:30 - 22:15

Astelehena 3: 19:30

Astearte 4: 20:15

'Tarzan'.

Igandea 2: 16:45



'Sonatine'
Takeshi Kitano
(Japonia, 1993)

1993ko Canneseko jaialdian estreinatua izan ondoren, hilabete batzuk beranduago Bergamoko Mostrak berreskuratu eta bertako Sari Nagusia irabazi zuen.

1997an Takeshi Kitano zuzendariak Venezia-ko Lehoia 'Hana-Bi' filmarekin irabazi bazuen ere, 'Sonatine' pelikula oso antzekoa da, ez du ezertxo ere falta.

Okerreko ideiak uxatu nahian, esan beharrean gaude film honetan ikusiko dugun Yakuza Samurai Beat protagonistaren suntsiketa prozesuak ez duela inolako loturarik, ez garapenean, ez estiloan. Mendealdoko kartelera komertzialetan eta bideo klubetan hain modan dauden Hong-Kongeko sasispelikula bortitz odoltsu deitoragarriekin.

musika

BEASAIN:

Apirilak 6, Cristina Pato gaitajole galiziarra, Usurbe antzokian, 21:00etan. Sarre-rak 1.000 pezetan.

SEGURA:

Martxoak 24, Niko Etxar-teen kontzertua, plazan, 23:00etan.

Martxoak 25, Naftena eta-Ene Bada taldeekin dantzal-dia, plazan, 23:00etan.

ZALDIBIA:

Martxoak 24, Marife No-gales eta Ana Belen Garcia Perez kantariak, Antzokian, 22:15ean.

dantza

BEASAIN:

Martxoak 25-26, Au-rresku eta doinu zahar txapel-keta, Usurbe Antzokian.

Apirilak 9, Dantzari Txiki eguna. 17:00etan dantza emanaldia, Loinazko San Martin plazan.

antzerkia

ORDIZIA:

Martxoak 31, Tanttaka tal-dearen 'El pianista del ocea-no' (euskaraz), 22:15ean, He-rrri Antzokian.

ikusentzuneakoak

BEASAIN:

Apirilak 12, Joxe Ramon Agirreren 'Bidaia nire erraie-tara: Nepal', Udaletxeko Ba-tzar aretoan, 19:00etan.



LAZKAO:

Apirilak 5, 'Hiru pauso, hi-ru norabide' ikusentzuneakoa, Josu Iztuetaren eskutik, Maizpiden, 21:00etan.

IN AUSTI



KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa

☎ 943 88 43 01 OLABERRIA

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57



Internet ikastaroa euskaraz

Apirilaren 8 eta 15ean, goizeko 9etatik 1era, Goierri Lanbide eskolan izango da Internet ikastaroa. Ordiziako Euskararen Aholku Batzordeak antolatua da. Matrikula 2.000 pezeta kostako eta bertan ordainduko da. Izen ematea Hitzaro euskara elkartearen egin daiteke. Telefonoa: 943 16 23 66.

hitzaldiak

LAZKAO:

Martxoak 28, 'Euskal Herriko lehenengo lurralde kontinentalaren sorrera eta bila-kaera Artikutzako barrutian oinarrituz', Maizpiden, 21:00etan. Hizlaria: Eneko Agirre.

Apirilak 3, 'Nor zen Frantzisko Areso Tolosa', Nerea Muruamendiarazaren eskutik, 7:30etan, kultur etxean.

Apirilak 5, 'Euskal Herriko ibaien ekologia', Joxe Ramon Diezen eskutik, Maizpiden, 21:00etan.

SEGURA:

Martxoak 24, Udalbiltzari buruzko hitzaldia, 19:30ean, kultur etxean. Hizlariak: Jon Jauregi (EAJ), Xabier Alegria (EH) eta Pello Gonzalez (EA).

bertsoak

IDIAZABAL:

Martxoak 31, Axari bertsolari gazteen txapelketa, Osinalde sariketarako puntuagarria izango dena, 20:30ean, Axari elkartearen.

erakusketak

BEASAIN:

Martxoaren 26ra arte, Igar-tza Sariko mendiko argazkien lehiaketan hautatutako argazki erakusketa, Usurbe Antzokian.

Martxoaren 25etik apirilaren 2ra arte, Jesus Larrañaga VII. argazki lehiaketan hautatutako argazki erakusketa, Jesus Larrañaga Kultur Elkartearen.

Martxoaren 31tik apirilaren 9ra arte, Gobenzuz Kanpoko Erakundeek egiten duten lanari buruzko erakusketa didaktikoa, Usurbe Antzokian.

Martxoaren 31ra arte, Iker Martin margolariaren oleo erakusketa, Aterpe tabernan.

Garagardo azoka Beasainen

Apirilaren 13, 14, 15 eta 16an garagardo azoka izango da Beasainen, San Martin plazan. 18:00etatik 24:00etara. 25-30 garagardo ezberdin dastatzeko aukera izango da. Mota horietatik 2 alkoholgabeak izango dira. Bertara hurbiltzen denak 200 pezetaren truke pitxarra jasoko du.

Edanaz gain, zer jana izango da. besteak beste, txerri ukolondoak eta saltxitxak. 500 lagunentzako jangela prestatuko da eta Roberto Ruiz beasaindarra izango da sukaldaria.

Ostiraletik igandera, kontzertuak eta pailazoak izango dira. Berri zehatzagoa hurrengo alean.

ORDIZIA:

Martxoaren 26ra arte, Jean Loup Bezosen pintura erakusketa, Barrenan.

Martxoaren 31tik apirilaren 28ra arte, Iñaki Moreno Ruiz de Eginoren pintura erakusketa, Barrenan.

ZALDIBIA:

Martxoaren 27ra arte, 'Hiru pauso, hiru norabide' argazki erakusketa, kultur etxean, 17:00etatik 19:00etara.

ZEGAMA:

Martxoaren 24tik aurrera, punto kruzean egindako lanen erakusketa, Haizea tabernan.

mendi-irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Martxoak 26, Urdaburu.

Apirilak 2, Beasain-Altzagarate-Ikaztegieta.

Apirilak 9, Erniora.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Urbizu
(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 88 02 32.

Martxoak 25-26: Cuesta
(Nafarroa Etorbidea, 39 - Beasain). 943 88 05 87.

Apirilak 1-2: Jauregi
(Santa Maria kalea, 2 - Ordizia) 943 16 09 49.

ARRIETA

*Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

JATE TXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

IKASTEK AKADEMIA

KALITATEA ETA PROFESIONALTASUNA

- ✓ Lehen eta bigarren hezkuntza
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Marrazketa teknika
- ✓ Larunbatetan klaseak

Hezkuntzako
profesionalak
goierritarren
zerbitzuan

☎ 943 16 01 20 Joan Iturralde, 5 BEASAIN



Korpus Kristi eguna Beasainen 1948an

1948ko udaberrian Beasainen Korpus Kristi egunean ateratako argazkia da. Mari Karmen Ibarbiak utzi digu argazkia. **Goiko ilaran, ezkerretik eskubira:** David Insausti, ezezaguna, ezezaguna. **2. ilaran:** Mari Karmen Zaballo, Pauli Rodriguez, Rakel Larrea eta Mari Karmen Velez. **3. ilaran:** Mila Irastorza, Marivi Hurtado, Pepi Gaztañaga eta Mari Karmen Ibarbia. **4. ilaran:** Ana M. Rodrigo, Maite Murgiondo, Elena Unzueta eta Clemen Estevez.

SAN BENITO IKASTOLA
LAZKAOKO
Haurtzaindegia-ludoteka

Zabalik urte osoan zehar:

- * Haurtzaindegia: 7:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 7:30etik 14:30era.
- * Jantokia: 7:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era (haur eskolarizatuak)
- * Haurtzaindegia-Ludoteka: 16:30etik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- * Kargurak: Ostiral eta larunbatetan 20:00etatik aurrera.

☎ 943 88 08 00 - 626 91 80 76 ☎

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8 ☎ 943 88 04 53 BEASAIN

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

Bodegon Arrizar

ASTELEHENETIK OSTEGUNERA
ETXERAKO ZERBITZUA

Pizzak, Pasta, Sandwich-ak,
Plater Konbinatuak, Ogitartekoak...

Zaldizurreta, 7 BEASAIN ☎ 943 889 844

JUAN KAR

- * Zoruen lixatu eta barnizadurak hautsik gabe
- * Parket ezartzeak

☎ 943 73 19 45 - 939 96 28 50
San Inazio, 42-2. ezk. LEGAZPI

Ford

MUJIK

BEASAIN ☎ 943 88 74 00

MUTILOA LANTZEN, S.A. MUTILOAKO UDALA

*ERAIKI EZAZU ZURE ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN*



*LUR-SAIL URBANIZATUEN SALMENTA
GERRIKOKO R-2 SEKTOREA
(Eliza, Udaletxea eta pilotalekuaren ondoan)*

OSO PREZIO INTERESGARRIAK!!

INFORMAZIOA:

943-800450 edo 943-731214

FOTOETXE

NAFARROA Etorb., 25

BIDELUZE, 2

BEASAIN

ARGAZKIGINTZA DIGITALEAN ERE PROFESIONALAK



**ZURE ARGAZKI
ZAHARRAK
BERRITZEN
DITUGU**



**ZURE TALDEKO
ARGAZKIEK
BEREIZKETAK
EGITEN DITUGU**



MUNTAIAK

ARGAZKI EDO IRUDI
EZBERDINAK
BAT EGITEN DITUGU

